

**EBAZPENA, 2024KO MARTXOAREN 14KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, DESTINOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUTEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LAN-PRESENTZIAK, LIZENTZIAK ETA BAIMENAK ARAUTZEN DITUENA.**

---

Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2021eko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez, destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan duten Justizia Administrazioiko funtzionarioen lan-presentziak, lizentziak eta baimenak arautu ziren. Ebazpen horren hitzaurrean, gai horri buruz zegoen araudi sakabanatua jasoko zuen sistema integratu bat ezartzea komeni zela adierazten zen, eta egitura bat eman behar zitzaiola, arauak izan zitzakeen aldaketetara arintasunez egokitu ahal izateko.

Une honetan, beharrezkotzat jotzen da araudi hori aldatzea, eta, beraz, 03.02.03 eranskineko 1, 2 eta 6. puntuan aldaketak sartzen dira. Halaber, eranskin berri bat sortzen da, 03.02.18 eranskina, baimen berri bati estaldura emateko.

Ebazpen horretan egingo diren aldaketak adierazitakoak badira ere, komenigarritzat jotzen da, lizentzia eta baimen guztiak ebazpen bakar batean mantentze aldera, ebazpen honetan ere jasotzea aurreko ebazpenean jasotako eranskin eta atal guztiak.

Horrela, sektorean ordezkariak duten erakunde sindikalekin landu da ebazpen-proposamena, 2022ko martxoaren 17an egindako bileran, non ELA, LAB eta CSIFeko ordezkariak sindikalekin sinatu baitzen. CCOOeko ordezkariak ez zuten akordioa sinatu.

Araudi hau honako atal edo eranskinek osatzen dute:

- **1. ATALA.- JUSTIFIKATU BEHAR EZ DIREN EGUNAK**
- **2. ATALA.- LANALDIAK ETA ORDUTEGIAK**
- **3. ATALA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK**
  - **03.01 ERANSKINA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK ESKATZEA, IZAPIDETZEA ETA EMATEA.**
  - **03.02 ERANSKINA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK**
    - **03.02.01 ERANSKINA.- Jaiotzei lotutako baimenak**
    - **03.02.02 ERANSKINA.- Gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak dituen senidea zaintzeko baimena;**
    - **03.02.03 ERANSKINA.- Senideen gaixotasun larri edo ospitaleratzeagatiko baimena, baita bizikidearena ere**
    - **03.02.04 ERANSKINA.- Senide baten heriotzagatiko lizentzia**
    - **03.02.05 ERANSKINA.- Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena**
    - **03.02.06 ERANSKINA.- Izaera publikoko edo pribatuko zereginen bat egiteko, behar den adina denbora:**
    - **03.02.07 ERANSKINA.- Zentro ofizialetan azken azterketak eta gainerako behin betiko gaitasun- eta ebaluazio-probak egiteko baimena.**
    - **03.02.08 ERANSKINA.- Senide baten heriotzagatiko lizentzia**
    - **03.02.09 ERANSKINA.- Bataio eta jaunartzeengatiko baimena**
    - **03.02.10 ERANSKINA.- Funtzio sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimenak eman daitezke.**
    - **03.02.11 ERANSKINA.- Hautetsi-karguen ondoriozko eginkizunak betetzeko baimena.**
    - **03.02.12 ERANSKINA.- Norberaren edo senideen ezkontzagatiko lizentzia.**
    - **03.02.13 ERANSKINA.- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak egiteko eta ekitaldi kolektibo zientifiko, tekniko edo profesionaletara bertaratzeko lizentzia.**
    - **03.02.14 ERANSKINA.- Norberaren beharretarako lizentzia.**
    - **03.02.15 ERANSKINA.- Praktiketako funtzionario izendatzeko lizentzia**
    - **03.02.16 ERANSKINA.- Istripu edo gaixotasunagatiko lizentzia.**
    - **03.02.17 ERANSKINA.- Berreskuratu beharreko baimen ordaindua, COVIDaren ondorioz konfinamendu-egoeran dauden adingabeengatik.**
    - **03.02.18 ERANSKINA.- Seme-alabak edo familian hartutako adingabeak (berarekin urtebete baino gehiago badarama) zaintzeko baimena, adingabeak zortzi urte bete arte.**
- **4. ATALA.- ORDUTEGI-KONTROLA.**

## **I.- APLIKAZIO-EREMUA**

Ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Justizia Administrazioako funtzionario guztiei aplikatuko zaie; Auzitegiko Medikuen kidegokoei eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegokoei, bai eta desagertzear dauden eskaletan sartuta daudenei ere.

## **II.- ERREKURTSOEN PROZEDURA ETA ARAUBIDEA**

Errekurtsoen prozedura eta araubidea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da.

Era berean, aplikagarria da abuztuaren 5eko 1765/1994 Errege Dekretua, Fiskaltzako kideei eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileei dagozkien langileak kudeatzeko prozeduren arauak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea egokitzen dituena.

## **III.- ORGANO ESKUDUNA**

Justizia Administrazioako langileen estatutu eta araubide juridikoari buruzko gai guztiak, hala nola hautaketa, hasierako eta etengabeko prestakuntza, destinoak betetzea, igoerak, administrazio-egoerak, lanaldia, lan-ordutegia, eta lizentziak eta baimenak kudeatu eta ematea, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari dagozkio, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 471. artikulua eta hurrengo arabera, Berdintasun, Justizia eta Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/21 Dekretuari lotuta.

Era berean, Justizia Administrazioako Zuzendaritza honi dagokio bere gain hartutako eskumenen eraginkortasunerako interpretazio-irizpideak hartzea.

## **IV.- INDARREAN JARTZEA**

Ebazpen hau eta beronen eranskinak EIZU-Langilearen Atarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

## **V.- INDARGABETZEA**

Indargabetuta geratzen da Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko ekainaren 14ko Ebazpena, destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan duten Justizia Administrazioako funtzionarioen

lan-presentziak, lizentziak eta baimenak arautzen zituena.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 14a

Jon Arturo Uriarte Unzalu  
**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**

## 1. ATALA.- JUSTIFIKATU BEHAR EZ DIREN EGUNAK

Hauek izango dira:

- norberaren gauzak
- soberako orduak
- oporrak

Justifikatu beharrik gabeko ordu kopurua eguneko zazpi ordu eta erdiko lanaldi arruntaren arabera kalkulatzen da, langilearen EIZU-atarian urtero argitaratuko den egutegiaren ebazpenean jasotako taulen arabera.

Taula horietan jasotako ordu kopurua proportzionalki murriztuko da lanaldia murrizteko baimena duten langileentzat.

### 1.- Lanaldiaren gaineko soberako orduak

Urteko lanaldia bete arte geratzen diren orduak soberako ordu gisa hartuko dira, eta barruti judicial bakoitzean urtero argitaratzen diren egutegi espezifikoetan zehaztuko dira.

Soberako ordu horiek sortzeko, ez da kontuan hartuko norberaren gauzetarako eszedentzia- edo lizentzia-egoeran emandako denbora.

Ordu horiek egun osotan hartuko dira, baina egun osoak hartzeko aukera ematen duten orduak agortutakoan, hartzeko orduak geratzen badira, soberakin hori honela erabili ahal izango da, funtzionarioaren aukeran:

- Langileak esleituta duen nahitaezko presentzia-orduen kopurura iristen bada, egun bat gehiago hartu ahal izango du, baldin eta egunero bete behar duen lanaldi arrunta osatzeko falta zaion denbora berreskuratzen badu baliatzen duen hilabetean edo hurrengoan.
- Ordu horiek ez badira iristen bost ordu eta erdira (edo zati proportzionalera, lanaldi-murrizketa badu), ordu horiek ordutegi malguaren kargura hartuko dira, gutxienez ordubeteko aldietan.

### 2.- Norberaren gauzak

Funtzionarioek norberaren gauzetarako bederatzi egun hartzeko eskubidea izango dute, zerbitzuan emandako urte natural oso bakoitzeko, edo proportzioan dagozkien orduak, urtean emandako benetako zerbitzu-denbora txikiagoa bada.

Baimen hori luzatu egingo da hirurtekoak osatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta egun hauek gehituko zaizkio:

- Seigarren hirurtekoa: 2 egun gehiago.
- Zazpigarren hirurtekoa: ez da egun gehigarririk sortzen
- Zortzigarren hirurtekoa: egun 1 gehiago
- Bederatzigarren hirurtekoa eta hurrengoak: egun 1 gehiago hirurteko bakoitzeko

Langileak egun horiek osorik baliatu ahal izango ditu, eta ez dira murriztuko baimena erabiltzen duen urtean benetan lan egindako denbora-proporzioagatik.

Norberaren gauzetarako egunen eta antzinasunagatik sortutako norberaren gauzetarako egunen artean dagoen alde bakarra sortzapenerako eskatzen diren baldintzak dira, baina ez izaera eta hartzeko modua. Horregatik, "Norberaren gauzetarako egunak" aipatzen diren bakoitzean ohikoak zein antzinasunagatik sortutakoak aipatzen direla ulertuko da.

### **3.- Oporrak**

Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek 22 laneguneko opor ordainduak hartzeko eskubidea izango dute zerbitzuan emandako urte natural oso bakoitzeko, egin duten lanaldi-mota edozein dela ere.

Oporraldi hori, emandako zerbitzuen denboraren arabera, gehienez beste lau egunez luzatuko da, zehazki:

- Hamabost urteko zerbitzuagatik: egun 1 gehiago
- Zerbitzuko hogeitaz betetzean: egun 1 gehiago
- Zerbitzuko hogeitaz bost urte betetzean: egun 1 gehiago
- Zerbitzuko hogeitaz hamar urte betetzean: egun 1 gehiago

Egun horietako bakoitzerako eskubidea dagokion zerbitzu-urtea bete eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

Langileak egun horiek osorik baliatu ahal izango ditu, eta ez dira murriztuko baimena erabiltzen duen urtean benetan lan egindako denbora-proporzioagatik.

Arauzko oporren eta antzinasunagatiko oporren arteko bereizketa bakarra sortzapenerako eskatzen diren baldintzetan datza, baina ez horien izaeran eta hartzeko moduan. Horregatik, "oporrei" buruz egiten diren aipamen guztiak arauzko oporrei eta antzinasunagatiko oporrei buruzkoak direla ulertuko da.

Oporrak urtean zehar hartuko dira, gutxienez bost laneguneko aldietan.

Oporraldia eskatu edo baimendu ondoren, egun berberetan gertatzen bada interesdunaren

- erditze, aitatasun edo amatasun, adopzio edo harreragatiko baimena
- edo gaixotasunagatiko edo ospitaleratzeagatiko lizentzia,

oporraldia eten edo, hala badagokio, atzeratu egingo da, baita oporrak sortu ziren urte naturala amaitu bada ere, harik eta

- erditze, aitatasun edo amatasun, adopzio edo harreragatiko baimena, edo, horrela badagokio, edoskitze-baimen metatua amaitu arte, edo
- gaixotasunagatiko lizentzia amaitu arte

Hala, gaixotasun, erditze, adopzio edo harrera eta aitatasun edo amatasunagatiko lizentzia edo, hala badagokio, edoskitzeagatiko baimen metatua amaitu eta hurrengo lanegunean hasiko da oporraldia edo geratzen den zatia, edo, hala badagokio, berriz hasiko da, eta jarraian eta etenik gabe hartu beharko da, lanpostura itzuli aurretik. Kasu horietan, oporraldia baliatu ahal izango da, betiere oporraldia sortu den urtearen amaieratik hemezortzi hilabete baino gehiago igaro ez badira.

Era berean, oporrak sortzen diren urtean,

- erditze, aitatasun edo amatasun, adopzio edo harreragatiko baimenean edo
- gaixotasunagatiko lizentzian

dagoenean pertsona bat urteko azken hiruhilekoan itzultzen bada lanera, salbuespen gisa, eta hala justifikatzen duten zerbitzu-arrazoiak daudenean, oporraldia hurrengo urteko lehen hiruhilekora aldatzeko aukera eman ahal izango da.

Eskubide horri ezin zaionez uko egin, eta zerbitzuaren beharrak behar bezala bete behar direnez hori emateko, interes-talka gertatuz gero lehentasun-irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Bulegoaren edo zerbitzu judizialaren barruan, berarekin talkan dagoenaren aldi berbera aurreko urtean eskatu baina hartu ez duenak.
2. Bulego edo zerbitzu judizialaren barruan aldi jakin bat eskatu baina hartu ez duena, nahiz eta ez etorri bat talka egiten ari den denboraldiarekin.

3. Beste bulego edo zerbitzu judizial batean destinatuta egonik, talkan dagoen aldi zehatz berbera aurreko urtean eskatu baina hartu ez duena.
4. Beste bulego edo zerbitzu judizial batean destinatuta egonik, aldi jakin bat eskatu baina hartu ez duena, nahiz eta ez etorri bat talka egiten ari den denboraldiarekin.
5. Zozketa

Adierazitako lehentasun-irizpideak urte batean baliatu dituenak ezin izango ditu berriro baliatu hurrengo urtean.

Orientazio gisa, zerbitzuaren premiak beteta daudela ulertuko da bertan lan egiten duten pertsonen ehuneko hirurogei gutxienez lanean ari denean.

Abuztuan, beren lanpostura joan behar duten langileen ehunekoa ezin izango da, oro har, bulego edo zerbitzu judizialean lan egiten duten pertsonen ehuneko hogeita hamar baino handiagoa izan, honako kasu hauetan izan ezik:

- Bake-epaitegiak, epaitegi mistoetako ZULUPak, fiskaltzak, zerbitzu orokor eta laguntzakoak, betearazpeneko zerbitzu erkideetako betearazpen-bulegoak eta betearazpen-atalak, herritarrei arreta emateko zerbitzuak, instrukzioko epaitegiak edo guardian ez dauden instrukzioko epaitegietako ZULUPak, adingabeen epaitegiak edo adingabeen epaitegietako ZULUPak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak edo indarkeriaren arloko epaitegietako ZULUPak, erregistro eta banaketako atalak, horietan guztietan ehuneko 40 izango baita portzentajea.
- Instrukzioko epaitegiak edo guardiako instrukzioko epaitegietako ZULUPak, erregistro zibilak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua, horietan guztietan ehuneko hirurogeik egon behar baitu gutxienez urte osoan.

Aurrekoa gorabehera, egon behar dutenen ehuneko horiek Bulego edo Zerbitzu Judizialeko arduradunaren erabakiz murriztu ahal izango dira, betiere zerbitzuaren beharrak behar bezala betetzen badira.

Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioek antolatuko dituzte beren oporrak, ematen dituzten zerbitzuen beharrei eta arretari jarraituz, eta lurralde historiko bakoitzean zuzendariordetzako buruak egiten duen proposamena loteslea izango da.



**4.- Ohar komunak oporrei, norberaren gauzetarako baimenari eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduen konpentsazioari buruz.**

Oporrei, norberaren gauzetarako baimen-egunei eta urteko lanaldiaren gaineko ordu-soberakinari dagozkien orduak oro har ezarritako lanaldi arruntaren arabera hartuko dira kontuan. Horregatik, sortze-aldian lan egindako denborari edo lanaldi arruntari dagokion zati proportzionalerako eskubidea honako hauek izango dute soilik:

- urtebete baino gutxiagorako kontratatutako langileak
- autonomia-erkidego honetan urte osoan Justizia Administrazioan lan egiten ez dutenak.
- lanaldi-murrizketa duten funtzionarioak.

Azken kasu horretan, esleitutako lanaldi arrunta betetzetik ez bada sortzen 22 opor-egun baliatzeko behar adinako kontingenterik, funtzionarioak eskatuta honela konpentsatu ahal izango da:

- dauden ordu-kontingenteekin, edo,
- ordainsari ekonomikoen deskontuarekin

Aitzitik, 22 opor-egun hartzeko behar baino ordu gehiago sortzen badira, ordu horiek ordu-soberakin gisa hartu ahal izango dira.

Sortzen den ordutegi-kontingentea egun osoetan hartuko da, eskatzaileak esleituta duen ohiko lanaldiaren arabera.

Egun osoak hartzeko ordutegi nahikorik ez badago, baina oporretako soberako orduak, norberaren gauzetarako baimen-egunak edo urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak geratzen badira hartzeko, ordu horiek batu ahal izango dira. Eraitza nahitaezko presentzia-ordutegiaren berdina edo handiagoa bada, baimen-egun bat gehiago hartu ahal izango da, betiere eskatzaileari dagokion eguneko lanaldi arrunta osatzeko falta den denbora errekuperatzen bada hilabete berean edo hurrengoan. Txikiagoa bada, ordutegi malguaren kontura hartuko da.

Oporrak, norberaren gauzetarako egunak eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak, oro har, urte naturalaren barruan hartu beharko dira, hau da, sortzen diren urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean; hala ere, gehienez lau eguneko baimena hartu ahal izango da hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 8ra arte.

Salbuespen gisa, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du lau egun horiek hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31ra arte hartzeko.

Egun horietan hartu ez diren baimenak iraungi egingo dira, arrazoia edozein dela ere.

Eskaera guztiekin batera, bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren oniritzia aurkeztu beharko da nahitaez. Izapide hori egiten ez bada edo aldekoa ez den txostena ematen bada, eskaera ukatu ahal izango da.

Oro har, egunak hartu baino lehen aurkeztu beharko dira eskabideak:

- Ekainaren 15a baino lehen, 3 egunetik gorako opor-egunak edo baimenak, uztailaren 1etik irailaren 15era bitartean hartzen badira.
- 15 egun lehenago, egunak Aste Santuan hartzeko badira.
- Urriaren 31 baino lehen, norberaren gauzetarako egunak eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak, urte horretan sortu eta hartzeko daudenak.
- Gainerakoak, 10 egun lehenago

Era berean, urriaren 31 izango da azken eguna urte horretan sortu diren eta hartzeko dauden opor-egunen eskaera aurkezteko. Nolanahi ere, funtzionario guztiek urteko opor-egun guztiak urriaren 31 baino lehen eskatu beharko dituzte, eta Zuzendaritza honek opor-egun horiek ezarri ahal izango ditu betebeharrak hori bete ez dela ohartuz gero.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, lanpostu hutsean, ordezkapenean edo errefortzuan izendatutako bitarteko funtzionarioek izendapena amaitu baino lehen eskatu beharko dituzte oporrak, eta, kargugabetzeko aurreikusitako dataren aurreko hilabetean eskatu ez badira, zuzendaritza honek erabaki ahal izango du noiz hartu. Hala ere, haren borondatearekin zerikusirik izan gabe gerora sortutako arrazoiengatik hartu ezin baditu, hartzeke geratzen zaizkion opor-egunak ordainduko zaizkio.

Norberaren gauzetarako egunak (arruntak edo antzinasunekoak) eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak ez dira dirutan konpentsatuko, ez osorik ez zati batean. Hurrengo izendapenentarako ere ezin izango dira metatu, haien artean etenik gabe egindako izendapenak ez badira. Kasu horretan, beste eskaera bat izapidetu beharko da, baldin eta izendapen hori beste bulego edo zerbitzu judizial batean egiten bada, egunak hartu nahi diren bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren oniritziarekin.

Era berean, oporreetatik edo baimenengatik lan egindako denboragatik legokiokeena baino ordu-kontingente handiagoa hartu duten baina, izendapen berriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionario gisa zerbitzuak etenik gabe ematen jarraitzen duten bitarteko funtzionarioek hartutako gehiegizko denbora berreskuratu edo konpentsatu ahal

izango dute sortutako kontingente berriaren kontura. Horrelakorik gertatzen ez bada, dagokion deskontua egingo da ordainsarrietan.

## 02. ATALA.- LANALDIAK ETA ORDUTEGIAK

### 1.- Urteko lanaldiaren iraupena eta lanaldi mota.

Urteko lanaldia Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren dekretu bidez ezarritakoa izango da, funtzio publikoaren arloan eskumena duen Sailak proposatuta. Dekretu horren bidez, urteko lanaldia ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari funtzionarioentzat, estatutupeko langileentzat eta lan-kontratuko langileentzat, alde batera utzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lan-egutegia onartzen duen Justizia Administrazioari zuzendariaren ebazpenean xedatutakoa.

Urteko lanaldia urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatuko da, eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen benetako presentzia 1.592 ordukoa izango da.

Lanaldi hori hurrengo atalean jasotako araudiaren arabera egin beharko da.

### 2.- Eguneko lanaldi arrunta eta ordutegiak

Justizia Ministerioko organo eskudunaren ebazpen bidez besterik xedatzen ez bada, destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan duten Justizia Administrazioari funtzionarioek zazpi ordu eta hogeita hamar minutuko lanaldi arrunta egin behar dute, jarraian, nahitaez egon beharreko ordutegiaren zati finko batez eta zati malgu batez osatuta.

Egunero bost ordu eta hogeita hamar minutu eman behar dira nahitaez lanean, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

Ordutegiaren zati malgua astelehenetik ostiralera banatuko da, 07:30etik 17:00etara, derrigorrezko presentziaren bost ordu eta erdiak deskontatu ondoren. Hau da, 07:30etik 09:00etara eta 14:00etatik 17:00etara.

### 3.- Lanaldi-murrizketak

#### 3.1.- Lanaldi-murrizketa guztietarako gai komunak:

Justizia Administrazioari langile guztiek lanaldi-murrizketarako baimena eskatu ahal izango dute, jarraian zehazten diren arrazoiengatik: Lanaldi-murrizketa 1/2, 1/3, 1/5 edo 1/8koa izan daiteke.

Lanaldi-murrizketek, edozein modalitatetan direla ere, ordainsarien murrizketa proportzionala eragingo dute kontzeptu guztietan, hirurtekoak barne, berariaz besterik xedatzen ez bada. Era berean, murrizketa horrek oporretan, lizentzietan eta baimenetan sortutako orduak murriztea ere ekarriko du.

Murrizketa-koefizientearen aldaketa benetako lanegunetan gauzatu beharko da, eta ezin izango da aldatu oportretan, lizentzietan edo baimenetan.

Murrizketa izapidetzeko, bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunaren aldez aurreko txostena eskatzen da, zerbitzuaren beharrei buruzkoa, eta emateko baldintzak izango dira premia horiek benetan betetzea eta gertaera eragilea egiaztatzea.

Murriztutako lanaldiak, halaber, nahitaez egon beharreko ordutegiaren zati finko batez osatzen dira, zeina hau izango baita:

- 1/8eko murrizketarako: 9:00 - 13:22
- 1/5eko murrizketarako: 9:00 - 13:00
- 1/3eko murrizketarako: 9:00 - 12:20
- 1/2eko murrizketarako : 9:00 - 11:30

Eta ordutegi-zati malgua ere izango du, ordutegi-tarte hauetan banatuta:

- 1/8eko murrizketarako: 7:42 - 9:00 eta 13:22 - 16:00
- 1/5eko murrizketarako: 7:48 - 9:00 eta 13:00 - 15:24
- 1/3eko murrizketarako: 8:00 - 9:00 eta 12:20 - 14:20
- 1/2eko murrizketarako: 8:15 - 9:00 eta 11:30 - 13:00

### **3.2.- Lanaldi-murrizketaren modalitateak:**

#### **3.2.1. Legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketa**

Legezko zaintza dela-eta pertsonaren bat zuzeneko zaintzapean duen langileak lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango du, ordainsariak proportzionalki murriztuta kontzeptu guztietan, hirurtekoak barne:

- hamabi urtetik beherakoa;
- dedikazio berezia eskatzen duena
- desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala izan eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duena\*
- bigarren mailara arteko senidea, harekin bizi dena eta adinagatik, istripuagatik edo gaixotasun larri iraunkorragatik bere kabuz moldatu ezin dena eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duena\*

(\* ) Ezintasun fisiko edo psikikoren bat duen pertsona batek pentsio bat jasotzea ez da ordaindutako jarduera baten parekoa.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira, kasuaren arabera:

- jaiotza-ziurtagiria edo ahaidetasuna egiaztatzen duen dokumentua
- desgaitasun-graduaren ziurtagiria
- zinpeko aitortpena, ordaindutako jarduerarik ez duela egiaztatzen duena
- gaixotasuna egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria
- legezko zaintza ziurtatzen duen dokumentua
- erroldatze-ziurtagiriak

### **3.2.2.- Lehen graduko edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko senideen gaixotasun oso larriagatiko lanaldi-murrizketarako baimena.**

Gaixotasun oso larria duen lehen graduko senide bat zaintzeko eskatu ahal izango da, edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko graduko senide bat zaintzeko.

Modalitate hau ordaindua izango da, eta honako kasu hauetan baimendu ahal izango da:

- gehienez ere hilabetez hartu ahal izango da, etenik gabe, edo
- txandaka hartu ahal izango da, gutxienez zazpi egun naturaleko aldietan, 30 egun gehienez.

Baimen hori bateraezina izango da gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzeko baimenarekin..

Subjektu eragile berarengatik eskubide horren titular bat baino gehiago badago, murrizketa-denbora titular horien artean hainbanatu ahal izango da, betiere hilabeteke edo 30 eguneko gehieneko epea errespetatuz.

Eskaerarekin batera, kasuaren arabera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- oso gaixotasun larria egiaztatzen duen txosten medikoa
- ahaidetasuna egiaztatzen duen dokumentua
- errolda-ziurtagiriak.

### **3.2.3.- Aurre-erretiroagatik**

Nahitaezko erretiroa hartzeko adina betetzeko bost urte baino gutxiago falta zaizkien funtzionarioek lanaldia murrizteko eskatu ahal izango dute, erdira arte, eta ordainsariak proportzionalki murriztuko zaizkie, hirurtekoak barne, baldin eta zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute.

### **3.2.4.- Funtzionarioen errekupeazio-beharragatik**

Lanaldiaren batez besteko murrizketa hori, ordainsariak proportzionalki murriztuta (hirurtekoak barne), gaixotasunen ondorioz errekupeazio-prozesuetan hala behar duten pertsonen eskatu ahal izango dute, betiere zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen badute eta langilea gaixotasuna dela-eta errekupeazio-prozesu batean dagoela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria tarteko bada.

### **3.2.5.- Norberaren interesagatik.**

Betetzen duten lanpostuaren eginkizunekin bateragarria bada, funtzionarioek lanaldiaren erdia, herena, bostena edo zortzirena murriztea eska dezakete, ordainsari guztien murrizketa proportzionala eginda, hirurtekoak barne.

Lan-orduak murriztea bateraezina izango da beste edozein jarduera egitearekin, murriztutako ordutegiaren barruan egiten bada, izan ordaindua, izan ordaindu gabea.

Baimen horretarako eskubidea izateko, bi urte izan behar dira, gutxienez, zerbitzu aktiboan hasi edo hartara itzuli denetik, eta urtebeteko eperako eskatu behar da gutxienez. Baimen hori amaitu edo eten ondoren, ez da beste baimenik emango arrazoi beragatik, harik eta baimena amaitu eta hiru urte igaro arte.

### **3.2.6.- Hautetsi-karguari dagozkion eginkizunak betetzeko**

Hautetsi instituzional diren funtzionarioek, karguaren ondoriozko eginkizunak betetzeko baimenaren orde, ohiko lanaldia zortziren batean, bosten batean, heren batean edo erdian murrizteko baimena izango dute, ordainsariak proportzioan murriztuta kontzeptu guztietan.

Eskabidearekin batera, kargu hautetsi instituzionala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

### **3.2.7.- Ikasketak egiteko**

Ikasketa ofizialak egiteko, funtzionarioek lanaldiaren zortziren bateko, bosten bateko edo heren bateko murrizketa eskatu ahal izango dute, oro har, urritik ekainera, edo, hala badagokio, ikasturte ofizialak irauten duen denboran, ordainsariak proportzioan murriztuta, hirurtekoak barne.

### **3.2.8.- Baimena, emakume funtzionarioaren aurkako genero-indarkeria dela-eta**

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume funtzionarioen bertaratze-hutsegiteak (osoak edo partzialak) justifikatutzat hartuko dira, arretako edo osasuneko gizarte-zerbitzuek zehazten duten denboran eta baldintzetan.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakume funtzionarioek, haien babesa edo gizarte-laguntza osorako eskubidea gauzatu daitezten, lanaldia murriztea —ordainsaria proportzioan murriztuta, hirurtekoak barne— edo lan-denbora berrantolatzea eskatu ahal izango dute, ordutegia egokituz, ordutegi malgua aplikatuz edo lan-denbora antolatzeke aplikatu daitezkeen beste modu batzuk erabiliz, ezartzen diren baldintzetan.

### **3.2.9. - Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba zaintzeko.**

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme edo alaba bat zaintzen ari diren funtzionarioek, betiere bi gurasoek, adoptatzaileek, adoptatzeko helburua duten zaintzaileek edo hartzaile iraunkorrek lan egiten badute, lanaldia gutxienez erdira murrizteko eskatu ahal izango dute, eta ordainsariak osorik jasoko dituzte seme edo alabaren ospitaleratzeak eta tratamendu jarraituak dirauen bitartean, dela minbiziagatik (tumore gaiztoak, melanomak edo kartzinomak) dela iraupen luzeko ospitaleratzea dakarren eta haien zuzeneko zaintza etengabea eta iraunkorra eskatzen duen beste edozein gaixotasun larriengatik.

Horretarako, arestian adierazitako inguruabarrak egiaztatu beharko dira, osasun-zerbitzu publikoaren edo autonomia-erkidegoko osasun-organo administratiboaren edo, halakorik bada, dagokion osasun-erakunde itunduaren txostenaren bidez, hori guztia 23 urte bete arte, gehienez ere.

Baldin eta bi gurasoek, bi adoptatzaileek, adoptatzeko helburua duten bi zaintzaileek edo harrera iraunkorreko bi hartzaileek, subjektu eta gertaera eragile beragatik, baimen hori hartzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen badituzte edo, hala badagokio, aplikagarri zaien Gizarte Segurantzako Erregimenean xede horretarako ezarritako prestazioaren onuradun badira, funtzionarioek ordainsari osoa jasotzeko eskubidea izango dute, lanaldi-murrizketak irauten duen bitartean, baldin eta beste gurasoak, adoptatzaileak edo adoptatzeko helburua duen zaintzaileak zein harrera iraunkorreko hartzaileak ordainsariak osorik kobratzen ez baditu, ez baimen horren araberakoak, ez aplikatzekoa zaion Gizarte Segurantzaren Erregimenean xede horretarako ezarritako prestazioaren onuradun gisa kobratzeko direnak; hargatik, hori ez da eragozpen izango dagokion lanaldi-murrizketarako eskubidea baliatzeko. Bestelako kasuetan, lanaldia murrizteko eskubidea baino ez da izango, ordainsariak murriztuta.



### **3.2.10.- Ekintza terroristaren ondorioz babes eta gizarte-laguntza osorako eskubidea gauzatzeko.**

Jarduera terroristaren ondorioz kalte fisiko edo psikikoak nozitu dituzten funtzionarioek, haien ezkontideek edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak eta funtzionario-harreman hori eta terrorismoaren biktimaren izaera zuten zauritu edo hildakoen seme-alaba adingabeek, baita Terrorismoaren biktimei errekonozimendu eta babes osoa emateari buruzko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 5. artikulua araberak mehatxatuak izan diren funtzionarioek ere (Barne Ministerioaren edo epai judicial irmoaren aurretiko aintzatespenarekin), aukera izango dute lanaldi-murrizketa eskatzeko, ordainsarien murrizketa proportzionalarekin, baita lan-denbora berrantolatze ere, ordutegia egokituz, ordutegi malgua aplikatuz edo lan denbora antolatze aplikagarri diren beste moduen bidez, ezartzen diren baldintzetan.

Neurri horiek hartu eta denboran zehar mantenduko dira ematen zaizkion pertsonaren babes eta gizarte-laguntza osorako beharrezkoak diren bitartean, dela ekintza terroristak eragindako ondorioengatik, dela mehatxuarean egoteagatik, erregelamenduz aurreikusten diren baldintzetan.

### **4.- Lanaldiaren barruko etenaldia.**

Sei orduko edo gehiagoko lanaldi arrunta esleituta duten funtzionarioek hogeita hamar minutura arteko eguneko etenaldi bakarra hartu ahal izango dute, eta etenaldi hori benetako lan gisa zenbatuko da.

Era berean, lanaldi-murrizketaz baliatzen diren langileek etenaldi bakarra egiteko eskubidea izango dute, lanaldian zehar, eman zaien murrizketarekin proportzionala den denboran.

Etenaldi hori ezin izango da bat etorri lanpostura sartzearekin edo lanetik irtetearekin, eta, oro har, lanaldi hori hasi eta bigarren ordutik aurrera hartu beharko da.

Atsedenaldirik ezin izango da dirutan ordaindu, ezta metatu ere ondoren baliatzeko.

Lantokiko arduradunak zainduko du atsedenaldirik irauten duen bitartean jendeari arreta emateko zerbitzua eta lantoki bakoitzeko funtzionamendurako baldintza orokorrak behar bezala bermatzen direla; eta horretarako, behar izanez gero, ekitatearen printzipioari jarraikiz antolatuko ditu txandak.

### **5.- Jendeari eta profesionaleri arreta emateko ordutegia.**

**5.1.-** Organo, bulego eta zerbitzu judizialetan, jendaurreko eta profesionalentzako ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango da, betiere, BJLOaren 188. artikuluan eta PZLaren 135. artikuluko bosgarren paragrafoan idazkiak aurkezteari buruz ezarritako jendaurreko ordutegia errespetatuz. Ordutegi hori lantokietako kanpoaldean jarriko da argi eta garbi toki nagusi batean.

**5.2.-** Hala eta guztiz ere, herritarrei laguntzeko zerbitzuetan eta dokumentuak aurkezteko erregistroetan 09:00etatik 15:00etara herritarrak hartzeko behar bezain beste langile egotea bermatu beharko da, jarri beharreko txandak jarrita.

**5.3.-** Era berean, Herritarrei Laguntzeko Zerbitzua eta Dokumentuak Aurkezteko Erregistroa leku berean badaude, Zerbitzu horietako langileei unitate bakar bat gisa aplikatu zaie txandakatzea.

## **6.- Ordutegi bereziak.**

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 500.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hainbat lantokitan ordutegi bereziak egitea aurreikusi ahal izango dute lanpostu-zerrendek, betiere jurisdikzio-arloko zenbait zerbitzu edo organoren ezaugarriek hori gomendatzen badute.

## **7.- Laneratzea larunbatetan.**

**7.1.-** Larunbatak ez dira kontuan hartuko ordutegi malgurako; izan ere, Euskadiko Bulego Judizialak itxita egoten dira larunbatetan. Hori guztia alde batera utzi gabe BJLOaren 182.1 artikulua bigarren paragrafoak ezartzen duena, hau da, Araudiaren bitartez larunbatak gaitzea jardun judizialearako.

**7.2.-** Era berean, araubide hori ulertuko da larunbatetan arreta eman behar zaien zerbitzuak eta guardia-zerbitzuan egon beharko luketen jurisdikzio-arloko organoak eta Justizia Administrazioaren bestelako zerbitzuak alde batera utzi gabe, betiere BJLOaren 501. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **8.- Presako eginbideak.**

**8.1.-** Presako eta atzeraezinezko eginbideak izanez gero, bulego judizialeko arduradunek idatziz emango dituzte egokitzat jotzen dituzten agindu eta jarraibideak, funtzionarioek egiten dituztela bermatzeko.

Lanaldia ezarritako ordutegitik harago luzatzeko orduak honela zenbatuko dira:

a. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 22:00etara lan egindako ordu bakoitza benetako bi ordu gisa, edo dagokion zati proportzionala.

b. 22:00etatik hurrengo eguneko 07:30era, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan lan egindako ordu bakoitza benetako bi ordu eta erdi gisa, edo dagokion zati proportzionala.

Ordutegi-konpentsazio horiek ez dira aplikatuko zaintza-zerbitzua ematen denean edo aipatutako ordutarteetan lan egiten denean zenbait lanpostu ezarrita dituzten lanaldi bereziak betetzeagatik, lanaldi-luzapen ordainduak egiteko akordioengatik edo ordutegiaren zati malgua langileak bere borondatez egiteagatik.

Aurreko inguruabarren ondorioz egin beharreko hileko lanaldia baino ordu gehiago lan egiten badira, ordu horiek konpentsatu ahal izango dira soberako orduak gertatu diren hilabeteko edo hurrengo hilabeteko ordutegi malguaren barruan.

**8.2.-** Jardun horiek ordutegi-kontrollean azalduko dira, dagozkion fitxaketen bidez.

## **9.- Familia eta lana kontziliatzea.**

**9.1.-** Salbuespen gisa, eta eskatzaileak Justizia Administrazioako Zuzendaritzari eskaera idatzia egin ondoren, zuzendaritzak baimena eman ahal izango die gurasoei eta legezko tutoreei ordutegi-zati finkoa egunean gehienez bi orduz aldatzeko, lanaldiaren hasieran edo amaieran, familia eta lana kontziliatzeko beharrei erantzuteko, kasu hauetan:

- a) hamalau urtetik beherako seme-alaba eta ondorengoak, adin-mugarik gabe desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonen kasuan.
- b) ezintasun fisiko edo psikikoa duten aurreko senideak, mugitzeko zailtasunak dituztenak edo gaixotasun larri iraunkorra dutenak, medikuaren txostenarekin egiaztatuta.

**9.2.-** Baimen horri dagokion igoera lanaldiaren zati malguan aplikatuko da, harik eta, orotara, egunekorako ezarritako lanaldia osatu arte. Nolanahi ere, nahitaez bertan egon beharreko bost ordu eta erdiak errespetatu behar dira, edo lanaldi-murrizketei dagokien denbora. Eguneko lanaldia osatu arte geratzen den denbora, familia-kontziliazioa erabiltzen den egunean egin ez bada, ordutegi malguaren kargura egingo da, hilabete berean, edo hurrengo hilabetean zehar, hilabete berean ezin bada.

### 3. ATALA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

#### 03.01. ERANSKINA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK ESKATZEA, IZAPIDETZEA ETA EMATEA.

##### 1.- Lanpostuko absentzia osoak edo partzialak jakinarazteko betebeharra.

Kasu guztietan, eta dagokion lizentzia, baimena edo ordutegi-gorabehera izapidetzeko betebeharra alde batera utzi gabe, lanpostuko absentzia osoa edo partziala bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunari jakinarazi beharko zaio, gutxienez 10 egun balioudun lehenago, edo lizentzia edo baimen bakoitzaren araudi zehatzean zehaztutako epean, salbu eta gertaera eragilea aurreikusterik ez badago; kasu horretan, absentzia gertatzen den egunean jakinaraziko da, edo hurrengo lehen lanegunean, baldin eta gertaera eragilea laneguna ez den egun batean, jaiegun batean edo lanaldia amaitu ondoren gertatzen bada.

##### 2.- Eskabideak izapidetzea

Oro har, ordutegi-kontrolako lizentzia, baimen eta gorabehera guztiak, baita, hala badagokio, egin beharreko aldaketak ere, enpleguaren atarian dagoen GEPEIZU sistemaren bidez izapidetu beharko dira.

Lizentziak, baimenak eta ordutegi-gorabeherak kudeatzeko prozedurak erabat ezarri arte, oraindik GEPEIZU sisteman sartuta ez dauden lizentziak eta baimenak [r-humanos@euskadi.eus](mailto:r-humanos@euskadi.eus) posta elektronikoen bidez izapidetu beharko dira. Azken bide hori erabiliko dute, halaber, beren lanpostutik kanpo dauden edo aldeztatik izapidetutako eskaerak baliogabetu nahi dituzten langileek.

Bide berberak erabiliko dira lizentzia edo baimen bakoitzerako eskatutako egiaztagiria bidaltzeko. Izapidetzeko modu horretatik kanpo geratzen dira txosten medikoak. Horiek gutun-azal itxian bidali beharko dira, eta gutun-azal horretan "*ziurtagiri medikoa dauka*" adierazi beharko da, Zuzendaritza honetako Pertsonaleko Zerbitzura zuzendutako gutun-azal baten barruan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz, 01010), dagokion zerbitzu medikora eramateko, han azter dezaten.

Lizentzia edo baimenaren jatorria Zuzendaritza honek kudeatzen ez dituen hirugarrenen osasun-arrazoia direnean, eskaerarekin batera datuak tratatzeko baimena aurkeztu beharko da. Baldintza hori bete ezean, baimena edo lizentzia ukatu egingo da.

##### 3.- Eskabideak izapidetzeko epea.

Bestelako eperik ezarri ezean, eskabideak gutxienez oporrak hartzeko aurreikusitako eguna baino 10 lanegun lehenago izapidetu beharko dira.

Betebehar horretatik kanpo geratzen dira bigarren mailarainoko senide baten gaixotasun larriagatik baimenak, senide baten heriotzagatik baimena, kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko

baimena, gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak dituzten senideak zaintzeko baimena, nahitaezko betebeharrerako baimena eta salbuespenezko egoeretako norberaren gauzetarako baimena, horiek lanera itzultzen den egun berean izapidetuko baitira, bertaratzea egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera. Kanpoan geratzen da, halaber, gaixotasunagatiko lizentzia, hasi eta laugarren egun naturala baino lehen izapidetuko baita.

#### **4.- Eskaera aldatzea edo ezeztatzea**

Emandako lizentziak eta baimenak baliatzen hasi aurretik, funtzionarioaren borondatearen arabera aldatu edo ezeztatu ahal izango dira, salbu eta baimen hori Zuzendaritzak berak ezartzen badu (adibidez, oporren kasuan, nahitaez hartu behar baitira lanerako ezintasun iragankorretik alta jaso ondoren).

Horretarako, baimena ezeztatzeko eskaera formalizatua igorri beharko dio funtzionarioak Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, lizentziak eta baimenak izapidetzeko ezarritako bideetatik, Bulego edo Zerbitzu Judizialeko arduradunaren oniritziarekin batera. Era berean, ez da inola ere onartuko emandako opor-egunak, lizentziak edo baimenak aldatzea edo ezeztatzea horiek baliatzeko aldia hasi ondoren.

Baldin eta funtzionarioa bere lanpostura joaten bada lizentzia edo baimen bat duen egunean, ezeztatzerakoan kontuan hartuko da egindako fitxaketa-ordua, modu honetan:

- Eskatutako ezeztapena emango da, baldin eta fitxaketa derrigorrezko presentzia-ordutegia hasi baino lehen egiten bada.
- Bestela, hau da, fitxaketarik ez badago edo fitxaketa nahitaezko presentzia-ordutegia hasi ondoren egiten bada, ez da lizentzia edo baimena ezeztatuko, eta eskatutako lizentzia edo baimentzat hartuko da.

Nolanahi ere, ezeztatzeko eskaera izapidetzeko gehieneko epea dagokion lizentzia edo baimena hasi behar zen eguna izango da.

Ezeztatzeko beharrezkoa izango da interesdunak berariaz eskatzea, eta arestian aipatutako epeetan izapidetu beharko da.

#### **5.- Ukatzea, etetea eta baliogabetzea**

Eskatzaileak esleituta duen lanaldi arrunta amaitu ondoren ez da emango lizentzia edo baimenik, espresuki hala xedatzen ez bada.

Baimen eta lizentzia guztiak ukatu ahal izango dira, kasu hauetan:

- erabili beharra behar bezala justifikatzen ez bada, justifikazioa nahitaezkoa denean.
- aplikatzekoa den araudiak eskatzen dituen baldintza formal eta materialak betetzen ez badira; edo
- zerbitzua behar bezala betetzen ez denean.

Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko zirkunstantziak hala ezartzen dutenean, oporrak, lizentziak edo baimenak eten edo ezeztatu ahal izango dira, eta hasi dituzten langileei berehala lantokira itzultzeko aginduko zaie, honako arrazoi hauengatik emandako lizentziak izan ezik:

- gaixotasuna
- amatasuna, aitatasuna eta adopzioa edo harrera, eta edoskitzea
- nahitaezko betebeharra
- senide baten heriotza
- senide baten gaixotasun larria

Lanera ez joatea, lizentzia edo baimen bat ukatu bada nahiz beharrezko baimena egiaztatu ez bada, justifikatu gabeko absentziaz hartuko da, eta diziplina-erantzukizuneko prozedurak eragin ahal izango ditu. Aurrekoa gorabehera, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak automatikoki konpentsatuko ditu absentzia horiek, urteko lanaldiaren gainean sortutako soberako ordutegiaren kontingentearen kargura. Egun osoak norberaren gauzatarako egunen kontura konpentsatu ahal izango dira, inguruabarrak aztertu ondoren.

Kontingente nahikorik ez badago edo interesdunak hala eskatzen badu, ordainsariak kenduko dira soldatatik, prozedura honen arabera:

- 1.- Hasteko ebazpena jakinaraziko da, idatziz.
- 2.- 15 laneguneko epea egongo da alegazioak eta egiaztagirak aurkezteko. Idazkia, horrela badagokio, posta elektronikoz bidali beharko da r-humanos@euskadi.eus helbidera, goiburuan nominan deskontua egiteko prozedura eta izen-abizenak zehaztuta.
- 3.- Epe hori igaroz gero alegaziorik egin gabe eta absentziak egiaztatzeko agiririk aurkeztu gabe, egintzat joko da entzunaldi-izapidea, eta Zuzendaritza honek deskontatu egingo ditu dagozkion zenbatekoak, gehienez ere hiru hilabeteren buruan, eta, oro har, epe bakarrean.
- 4.- Beteazpen horrek ez du administrazio-bidea agortuko, eta gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari hilabeteko epean, deskontua egin zenetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman

gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

5.- Alegazio-idazkia aurkeztu bada, Zuzendaritza honek erantzun egingo dio, prozedurari amaiera emango dion ebazpen baten bidez. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazten denetik hasita. Kasu horietan, ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean egingo da deskontua.

#### **6.- Lizentzia eta baimenen eta oporraldien arteko bateraezintasuna**

Inola ere ez da lizentzia- edo baimen-eskaerarik onartuko oporraldian. Oporraldia ez da etengo, salbu eta eskatzailea ospitaleratzen bada edo aldi baterako ezintasun-, amatasun- edo aitatasun-egoeran badago edo adingabeak harreraren hartzen edo adoptatzen baditu.

#### **7.- Lizentzien eta baimenen eta guardia-zerbitzua ematearen arteko bateraezintasuna**

Lizentziak eta baimenak hartzea eta guardia-zerbitzua ematea bateraezinak dira.

#### **8.- Lekualdatze-lehiaketa eta baimenak eta lizentziak hartzea**

Lanpostuaz jabetzeko epeak interesdunei emandako oporrak, lizentziak edo baimenak amaitzen direnean hasiko dira, urteko lanaldiaren gaineko soberako orduak konpentsatzeko egunak barne. Halaber, lanpostuaz jabetzeko epeak hasi badira, langileak ezin izango du baimen, lizentzia edo oporrik baliatu. Salbuespen gisa, lizentzia edo baimen baten jatorria lanpostuaz jabetzea galarazten duen kausaren bat bada (gaixotasuna, amatasuna), lizentzia edo baimen horiek eraginkortasunari eutsiko diote, eta horrelako kasuetan, lanpostuaz jabetzeko epea amaituko da horiek baliatzeagatik.

#### **9.- Lizentzia eta baimena hartzen ari denean lanpostua uztea**

Funtzionarioak bere lanpostua uzteak baliatzen ari den edo eman zaion edozein lizentzia edo baimenaren amaiera eragingo du. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo edo zerbitzu judizial batean lanpostuaz jabetzen bada berriro, etenik gabe, aurreko destinoan emandako lizentziak eta baimenak berriro eskatu beharko dira, hartu nahi diren bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren oniritziarekin.

#### **10.- Lizentzia eta baimen gisa emandako egunak eta lan-denbora**

Lizentzia eta baimenatarako zehaztutako egunak lanegunak dira, salbu eta berariaz beste aukerarik ezartzen bada. Lanegunak dira lan-egutegiaren arabera langileek zerbitzu efektiboak, arruntak zein bereziak, eman behar dituzten egun guztiak, asteko zein eguni dagozkion kontuan hartu gabe.

Oro har, lizentzia edo baimena gertaera eragilearen egunean hasiko da; edo hurrengo lanegunean, aplikatzekoa den araudian berariaz horrela xedatzen bada. Nolanahi ere, gertaera eragilearen eguna eskatutako aldiaren barruan egon beharko da, berariaz beste aukerarik ezartzen ez bada.

Era berean, besterik xedatzen ez bada, lizentzia- edo baimen-egunak etenik gabe hartu beharko dira.

### **11.- Justifikazioa.**

Lizentzia eta baimenetan eskatzen den dokumentazio zehatza alde batera utzi gabe, norberaren gauzetarako egunak, lanaldiaren gaineko soberako orduen konpentsazioa eta oporrak izan ezik, gertaera eragileak egiaztatu beharko dira Zuzendaritza honetan.

Orduka aurreikusitako baimenetan, egiaztagiria honako hauek jaso beharko ditu nahitaez:

- a) Baimen-eskubidea zein tokitan baliatu den.
- b) Hasiera-ordua
- c) Amaiera-ordua

### **12.- Lehen eta bigarren mailako senideak zein diren**

Honako hauek hartzen dira lehen mailako senidetzat:

- Ezkontidea
- Goranzko lerroan: aita eta ama eta, hala badagokio, haien ezkontideak; eta ezkontidearen aita eta ama
- Beheranzko lerroan: seme-alabak eta, hala badagokio, ezkontideak, eta ezkontidearen seme-alabak

Honako hauek jotzen dira bigarren mailako ahaidetasuneko senidetzat:

- Goranzko lerroan: aitona-amonak, eta, hala badagokio, ezkontideak; eta ezkontidearen aitona-amonak
- Beheranzko lerroan: bilobak eta, hala badagokio, horien ezkontideak; eta ezkontidearen bilobak
- Alboko lerroan: anai-arrebak eta, hala badagokio, ezkontideak; eta ezkontidearen anai-arrebak

Ezkontideari buruz egiten diren aipamen guztiak Izatezko Bikoteen Erregistroan behar bezala inskribatutako izatezko bikoteari buruz ere egiten direla ulertzen da.

Familia-harremanak egiaztatzeko, Erregistro Zibilean edo Izatezko Bikoteen Erregistroan dagoen inskripzioa aurkeztu beharko da.



### 13.- Joan-etorriak

#### 13.1.- Egun osokoa

Langilearen lantokitik 150 km baino urrunago gertatzen diren gertakari eragileetarako aurreikusitako bidaia-egunak egun naturalak dira.

Luzapen horiek, kasuan kasuko baimenean berariaz besterik xedatu ezean, baimenaren ondoren etenik gabe hartu beharko dira; egun bat baimena hartu aurrekoa izango da (joaneko bidaia), eta bestea, baimena amaitu eta hurrengo eguna (itzulerako bidaia).

Egun naturaletan luzatze hori joan-etorriak errazteko egiten denez, eta ordaindua denez, edozein frogabidez egiaztatu egin beharko da joan-etorrietarako kontuan hartutako egunetan hori benetan egin dela. Dokumentu bidez egiaztatu ezin den salbuespenezko kasuetan, interesdunak aurkeztutako datuen erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko du, datu horiek erabiltzen dituenak bere gain erantzukizuna har dezan adierazten duena egiazkoa dela eta baimena behar bezala erabiltzen duela.

#### 13.2.- Itinereak

Gertaera eragilearen lekutik lantokira edo bizilekura joateko behar diren denborak kontuan hartu behar diren orduengatiko baimenetarako, oro har, eta justifikatu beharrik gabe, honako hauek hartuko dira kontuan:

- lantokia edo bizilekua, zein dagokion, eta baimenaren lekua herri berean daude:

$$45' + \text{baimen-denbora} + 45'$$

- lantokia edo bizilekua, zein dagokion, eta baimenaren lekua herri desberdinetan daude:

$$30 \text{ km arte: } 45' + \text{baimen-denbora} + 45'$$

$$31 \text{ eta } 40 \text{ km bitarte: } 65' + \text{baimen-denbora} + 65'$$

$$41 \text{ eta } 50 \text{ km bitarte: } 75' + \text{baimen-denbora} + 75'$$

$$51 \text{ eta } 60 \text{ km bitarte: } 85' + \text{baimen-denbora} + 85'$$

$$61 \text{ eta } 70 \text{ km bitarte: } 95' + \text{baimen-denbora} + 95'$$

$$70 \text{ km baino gehiago: } 100' + \text{baimen-denbora} + 100'$$

Behar bezala egiaztatuz gero bakarrik erantzungo zaie joan-etorri luzeagoei.

Langileak egun berean baimen bat baino gehiago hartzeko eskubidea baliatzen duenean, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa bete beharko da —aplikatu behar bazaio—, eta baimenak erabiltzeko orduz gain, ordu horiek zer lekutan izan diren hartuko da kontuan, joan-etorrietarako denbora luzatzea egokia den ala ez erabakitzeko.

### **13.2.1.- Langilea lantokira baimenaren aurretik edo ondoren joaten denean**

a) Lanean emandako denboraren gehi lizentzian edo baimenean erabilitako denboraren gehi, hala badagokio, joan-etorriaren baturaren iraupena lanaldiarena baino laburragoa bada:

- Denbora-alde hori bi ordutik beherakoa bada, ordu-saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango da, edo ordu-soberakineko orduen kontura edo, kontingenterik ez badago, beste baimen batzuen kontura.
- Aldea bi ordutik gorakoa bada, ordu-soberakineko orduen kargura soilik konpentsatu ahal izango da, edo, kontingenterik ez badago, beste baimen batzuen kargura.

Kompentsazioa, bi kasuetan, interesdunak eskatu beharko du.

b) Baimena lanaldia hasi ondoren hartzen bada eta lanera itzultzen ez bada, lanaldiaren eguneko saldoa ez da inola ere positiboa izango.

### **13.2.2.- Langilea lantokira joaten ez denean, ez baimena eman zaion lekura joan aurretik ezta joan ondoren ere.**

Baimenaren eta, hala badagokio, dagozkion joan-etorrien iraupena lanaldiaren iraupena baino laburragoa bada, denbora-alde hori ordu-soberakineko orduen edo, kontingenterik ez badago, beste baimen batzuen kargura konpentsatzeko eskatu ahal izango da. Inola ere ezingo dira berreskuratu.

### **13.3.- Justifikazioa.**

Itinereak ataleko 13.2 puntuan jasotako gehieneko denborak gainditzen diren kasuak behar bezala justifikatu beharko dira.

Lan egiteari utzitako orduak ordutegi-kontingentearekin behar bezala justifikatzen ez diren edo konpentsatu ezin izan diren kasu guztietan, nominan deskontua egingo da, eranskin honetako 5. puntuan ezarritakoaren arabera.

**DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO BAIMENA**

Izen-abizenak:.....

(NAN zk.: .....), baimena ematen diot Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (IFZ: S4833001C) ..... jaunak/andreak aurkeztutako eskabideko datuak tratatzeko, ..... baimena izapidetze aldera, baita lizentzia eta baimenak izapidetzearekin lotutako beste dokumentu normalizatuetan jasotzen diren datuak erabiltzeko ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko .abenduarien 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Baimen horren barruan sartzen da, gainera, datu pertsonal horiek dagozkien fitxategietan sartzea, bai eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak izendatutako erakundeei datu horiek ebaluatzeko lagatzea ere.

Era berean, adierazten dut badakidala ezen, egoki irizten diodan guztietan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala, betiere idatziz, helbide elektronikoa honetan:

- [r-humanos@euskadi.eus](mailto:r-humanos@euskadi.eus) edo,
- posta arruntaren bidez: Eusko Jaurlaritza  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila  
Justizia Administrazioako Zuzendaritza  
Donostia kalea,1.  
01010 Vitoria-Gasteiz

....., 20.....(e)ko .....ren .....a.

Sinadura

Izen-abizenak:

NAN/IFZ

### 03.02.01 ERANSKINA JAIOTZEI LOTUTAKO BAIMENAK.

#### 1.- Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.

- 1.1. Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionario haurdunek baimena hartzeko eskubidea izango dute, jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak egitera joateko beharrezkoa den denboran.
- 1.2. Egokitasun-adierazpenerako informazio-saioretara joatea edo txostenak prestatzea nahitaezkoa bada adoptatzaile guztientzat, eta gurasoak edo gurasoek joan behar badute gai horretan eskumena duen administrazioaren berariazko errekerimendu baten arabera, saio horietara joan izanaren justifikazioa aurkeztu beharko da.

#### 2.- Baimenak: ama biologikoarentzat, jaiotzagatik; adopzioagatik, adopziorako edo harrerarako zaintzagatik, aldi baterakoa zein iraunkorra; eta ama biologikoa ez den gurasoarentzat, seme edo alaba baten jaiotzagatik, adopziorako edo harrerarako zaintzagatik, edo adopzioagatik.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute oro har eta oinarrizko araudiak ezartzen duenari kalterik egin gabe, adingabearen gurasoek, adoptatzaileek edo zaintzaileek, diren sexuak direla, jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatik, enplegu publikoaren oinarrizko araudian erregulatutako moduan. 18 aste horiek luzatu egingo dira, oinarrizko araudiaren arabera legokiokeen luzapenez gain, kasu hauetan:

- bi aste gehiago haur bakoitzeko, bi haur edo gehiago jaio, adoptatu edo harreran hartzen direnean.
- bi aste adingabeak desgaitasunen bat izanez gero.

Aste horien izaera hau da:

	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa
Nahitaezko asteak	6 aste	6 aste
Borondatezko asteak	10 aste	10 aste
Hobekuntzako asteak	2 aste	2 aste

## **2.1.- Baimena hartzea**

Baimen hori besterenezina da.

### **2.1.1.- Nahitaezko asteak.**

Bai ama biologikoak, bai ama biologikoa ez den guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo hartzaileak sei (6) asteko baimena izango du, etenik gabe, eta adopzioa edo adopziorako zaintza edo harrera eratzen duen erabaki judizialaren edo administratibotik aurrera.

### **2.1.2.- Borondatezko asteak**

Ama biologikoak eta ama biologikoa ez den guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo hartzaileak hamar (10) asteko baimena izan ahal izango dute, eta honela hartu beharko dute:

a) Etengabe, aste guztiak agortu arte. Baimena hartzeko modu hori nahitaezkoa izango da kasu hauetan:

- bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
- adopzio, zaintza edo harrerako haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.

b) Asteka.

Asteka hartuko dira baimen-zatiak, haurrak 12 hilabete bete arteko mugarekin, une hauetakoren batean hasita:

- Ama biologikoa denean: nahi duenean, sei asteko nahitaezko atsedenaldea amaitutakoan.
- Adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera kasuetan, aldi baterakoak zein iraunkorrak: bi gurasoek lan egiten badute, nahitaezko atsedenaldiaren ondoren.
- Beste gurasoaren kasuan: bi gurasoek lan egiten badute,
  - nahitaezko atsedenaldiaren ondoren
  - jaiotzagatiko baimenaren hamaseigarren astearen ondoren egiten bada, eta beste gurasoak edoskitzea lanaldi osoetan metatzea eskatu badu, aldi hori amaitzean hasiko dira zenbatzen ama biologikoa ez den gurasoaren baimeneko gainerako hamar asteak (horiei hobekuntza-asteak gehitu beharko zaizkie).

Baimena asteka hartzen denean, aste osoetan banatuta hartuko da, eta baimen-zati bakoitza hartzeko aurreabisu erreboka ezina egin beharko da, gutxienez 15 egun baliodun lehenago. Aurreabisua r-humanos@euskadi.eus helbidera bidaliko da, eranskineko ereduaren arabera.

### **2.1.3.- Hobekuntzako asteak**

Bai ama biologikoak bai ama biologikoa ez den gurasoak, adoptatzaileak, zaintzaileak edo hartzaileak bi asteko baimena izango dute, etenik gabe eta oinarrizko araudiak onartutako borondatezko parte amaitu eta berehala, horren iraupena edozein dela ere.

Hobekuntza hori etenik gabe gozatu beharretik salbuetsita geratuko dira, izendapenaren edo kontratuaren iraupena dela-eta, etenik gabe hartu ezin dutenak; kasu horretan, hurrengo izendapenean edo kontratuan berehala jarraituko dute baimenarekin, harik eta agortu arte, betiere haurrak hamabi hilabete bete aurretik.

## **3.- Gai orokorrak**

**3.1.-** Aurrez abisatutako baimena hartu aurretik lan-istripuren bat gertatuz gero, baimen hori gero hartzeko utzi ahal izango da, betiere haurrak hamabi hilabete bete aurretik.

**3.2.-** Baimen-asteak erabakitzeko erreferentzia gertaera eragilearen data izango da beti; hortaz, norbait lanpostura sartzan, berriz sartzan edo itzultzen bada baimena osorik agortu aurretik, jatorriko eremuko lan-baldintzak mantenduko dira, legokiokeen aste-kopuruaren mugarekin.

**3.3.-** Ama biologikoa hiltzen bada, beste gurasoak baliatu ahal izango du oinarrizko araudiaren arabera hari zegokion baimenaldi osoa edo baimenalditik geratzen den zatia.

**3.4.-** Oinarrizko araudian ezarritako borondatezko zatiko asteak zatika hartzen direnean, ordainketa ez da egingo aste guztiak agortu arte, Entitate Kudeatzaileak behar diren garapen informatikoak egiten ez dituen bitartean haurra jaiotzeagatik eta adingabea zaintzeagatik ematen diren prestazioak kudeatu, izapidetu eta ordaintzeko aplikazioetan.

**3.5.-** Jaiotzei lotutako baimenengatik hartutako denbora benetako zerbitzuko denboratzat hartuko da ondorio guztietarako, eta funtzionarioaren eta, hala badagokio, beste guraso funtzionarioaren eskubide ekonomiko guztiak bermatuko dira baimenak irauten duen aldi osoan eta, hala badagokio, baimena hartu ondorengo aldietan ere, baldin eta, aplikatu beharreko araudiaren arabera, ordainsari-kontzepturen bat jasotzeko eskubidea baimena hartzen den aldiaren arabera bada.

**3.6.-** Jaiotzei lotutako baimena erabili duten funtzionarioek eskubidea izango dute baimenaldia amaitu ondoren beren lanpostura itzultzeko, baimena hartu aurretik zituzten baldintza berberetan, bai eta absente zeuden bitartean lan-baldintzetan beren eskubidez izan zezaketen edozein hobekuntza baliatzeko ere.

**3.7.-** Jaiotza-baimenaz baliatzen diren funtzionarioek oporraldia eskatu beharko dute, baimen hori sortzen den urte naturalaren barruan hartzeko. Hala ere, bi aldian (oporrak eta jaiotzagatiko baimena) aldi berean gertatzen badira, oporraldia eten edo atzeratu egingo da jaiotzagatiko baimena amaitu arte, baita oporrak sortu ziren urte naturala amaitu bada ere. Erditze, adopzio edo harreragatiko eta aitasunagatiko baimena edo, hala badagokio, edoskitzeagatiko baimena, metatuta hartu bada, amaitu eta hurrengo lanegunean, oporraldia hasiko da berriz, eta jarraian eta etenik gabe hartu beharko da lanpostuan berriro hasi baino lehen.

**3.8.-** Jaiotza-baimenean dauden bitartean, Administrazioak deitutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izango dute funtzionarioek.

**3.9.-** Erditze goiztiarren kasuan eta, beste edozein arrazoiengatik, jaioberriak erditzearen ondoren ospitaleratuta egon behar duenean (haurdunaldia bete duen jaioberriaren egonaldia izan ezik; hau da, normaltasunez egoten diren lehenengo 24-72 orduak), baimen hori jaioberria ospitaleratuta dagoen egun guztietan luzatuko da, hamahiru aste gehiago gehienez.

**3.10.-** Nazioarteko adopzioen kasuetan, adoptatzaileak edo hartzaileak adoptatutako edo harreran hartutako haurraren jatorrizko herrialdera aldeztu aurretik joan behar badu, adopzioa edo harrera eratzen den egunaren aurretik edo ondoren baliatu ahal izango da baimena; nolahi ere, egun hori baimenaren barruan egon beharko da.

Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan gurasoak adoptatuaren jaioterrira bidaiatzea beharrezkoa bada, gainera bi hilabete iraungo duen baimena hartzeko eskubidea izango dute langileek, eta epealdi horretan oinarritako lansariak baino ez dituzte jasoko. Baimen hori gutxienez zazpi egun naturaleko aldietan zatitu ahal izango da, gehienez hirurogei egunez.

#### **4.- Baimenak lanaldi partzialean hartzea**

Baimen hori lanaldi partzialean ere hartu ahal izango da, zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen badute, eta horregatik, aukera hori banaka adostu beharko da. Partzialki hartzea ukatzen bada, dagokion organoaren txostena beharko da, hitzarmenean ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, lanaldi partzialean hartzeko aukera indarreko hitzarmenean aurreikusitakoetara mugatu beharko da, eta baimena gozaten hasi ondoren ezin izango da lanaldi-aldaketarik egin.

## 5.- Hamabi hilabetetik beherako haurragatiko edoskitze-baimena

Baimen hau enplegatu publikoen eskubide indibiduala da, ezin zaio besterendu beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoari, eta haurrak urtebete egin aurretik hartu behar da inola ere.

Etenik gabe hartutako baimenaldi osoa amaitutakoan, edo nahitaezko baimenaldia amaitutakoan zatika hartzea erabaki bada, modalitate hauetako bat hautatu ahal izango da, gero aldatzeko aukerarik gabe:

- lantokitik ordubete alde egitea, bi zatitan banatzeko aukerarekin.
- lanaldi arrunta murriztea, hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- edoskitze-denboraren orde, ordaindutako baimena hartzea, dagokion denbora lanaldi osoetan metatuta. Modalitate hori nahitaezko aldia (sei aste) amaitu baino lehen eskatu beharko da, eta jaiotza, adopzio, zaintza edo haurragatiko baimena edo ama biologikoa ez den gurasoarena amaitzen denetik aurrera soilik baliatu ahal izango da.

Edoskitze-aldia kalkulatzeko, baimena eskatzen denetik (nahitaezko seigarren astea amaitu baino lehen egin bada) edo interesdunak eskaeran adierazten duen egunetik adingabeak hamabi hilabete egin arte metatu daitezkeen lanegun guztiak hartuko dira kontuan. Kasu horretan, eskaera egiten duten funtzionarioek eskaeran jakinarazi beharko dute zer oporraldi, baimen edo eszedentzia aurreikusten dituzten semearen edo alabaren hamabigarren hilabetea bete arte. Baimena metatzeko kontuan hartu diren hamabi hilabeteak osatu gabe lanpostua uzten duten bitarteko funtzionarioen kasuan, edo eskaera egiazkoa ez bada, sortu ez den denbora konpentsatu egingo da, opor-egunen kargura, norberaren gauzetarako egunen kargura edo urteko lanaldiaren gainetik hartzeko geratzen zaizkien soberako orduak konpentsatzeko egunen kargura. Aipatutako ordu-kontingenterik ez badago edo aldi osoa estaltzeko nahikoa ez bada, konpentsazio ekonomikoa aplikatuko da.

Bai karrerako funtzionarioen kasuan, bai bitarteko langileen kasuan, semearen edo alabaren hamabigarren hilabetea bete arteko oporraldien, baimenen edo eszedentzien eskaera egiazkoa ez bada, aurreko paragrafoan ezarritako konpentsazioa ere eragin ahal izango du.

Baimen honen iraupena modu proportzionalen luzatuko da erditze, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza denean.



**I. ERANSKINA**

**AURREABISU-EREDUA**

Nik, .....,  
jaunak/andreak (NAN zk.:.....),

**JAKINARAZTEN DUT,**

arauak agindutako gutxienez 15 egun baliodun lehenagoko epearen barruan, (jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatik; edo ama biologikoa ez den beste gurasoaren jaiotza, adopzio eta adopzio aurreko zaintza edo harreragatik) baimena hartu nahi dudala, nire (zehaztu), (urte)ko (hila)ren (eguna)n jaiotakoa, dela-eta. Zehazki, baimena zatika hartzea eskatzen dut aste hauetan: (Zehaztu, aste osoak hartu behar direla kontuan izanda)

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....(e)n, 202...(e)ko .....ren ...(e)(a)n.

Sinadura

### **03.02.02 ERANSKINA.- GAIKOTASUN KRONIKOAK EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENITARTEKOAK ZAINTEKO BAIMENA.**

Mugitzeko arazoak dituen edo osasun-txostenaren bitartez egiaztatutako gaixotasun larri iraunkorra duen odol edo ezkontza bidezko 2. mailara arteko senideak —edo, elkarrekin biziz gero maila urrunagoko senideak— zaindu behar dituen Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioak urtean gehienez berrogeita hamar orduko baimen ordaindua izango du. Baimen hori bakarria izango da, 50 ordukoa gehienez, edozein dela ere eskaera oinarritzen duen senide-kopurua.

Alde batera utzi gabe EIZU enpleguaren atariaren bidezko hasierako nahitaezko eskaera, zeina ematen denetik aurrera baimenerako eskubidea sortuko baita, funtzionarioek sistema beraren bitartez bideratu beharko dute baimena erabiltzearen ondorioz gertatzen den absentsia bakoitza. Era berean, langileek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote dagokion bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunari baimena nola erabiliko duten, eta, gutxienez, hura erabiltzen den egun berean.

Hasierako eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira, zehazten den moduan: gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak egiaztatzen dituen mediku-txostena, ahaidetasun-harremana bermatzen duen dokumentazioa eta, hala badagokio, bizikidetzaz-ziurtagiria, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, baimena behar bezala erabiltzeko konpromisoa adierazten duena.

Baimen horri dagozkion urteko orduen kopurua kalkulatzeko, lanaldiaren ehunekoa edo urte naturaleko zerbitzu-denbora hartzen dira kontuan. Hau da, proportzionaltasun hori aplikatuko da bai funtzionarioek urte natural osoan lan egiten ez dutenean, bai urte osoan lan egin arren lanaldia murrizteko baimenak baliatzen dituztenean. Azken kasu horretan, urteko orduak bat etorriko dira sortze-aldian egindako benetako lanaldiarekin.

Baimena urteko zenbaketan konfiguratzenez, hasierako eskaeraren iraupena eskaera izapidetzen den egunetik eskaera egiten den urteko abenduaren 31ra arte proportzionalki dagokiona izango da. Hurrengo luzapenak dagokion urteko urtarrilaren 1ean hasiko dira, urtea amaitu arte. Horretarako, urte bakoitzaren hasieran, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak, oro har, baimen hori automatikoki berrituko du, baimen-eskubidea hasieratik sortu zen kasuetan izan ezik, salbuespenezko eta aurreikusteko moduko aldi baterako zirkunstantzien ondorioz, hala nola "haurren gaixotasun kroniko jakin batzuk" edo "tratamendu luzeko gaixotasun larriak". Azken kasu horietan, interesdunak eskaera aurkeztu beharko du enpleguaren Atariaren bidez, hasierako eskaera eragin zuten zirkunstantziek bere horretan dirautela egiaztatzen duen mediku-egiaztariarekin batera.

Baimen honetan eragina duen edozein gorabehera langileen zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.

Urte naturalean edo, hala badagokio, baimenaren indarraldian erabili ez den denbora ezin izango da dirutan konpentsatu, ez osorik ez zati batean, eta ezin izango da baimenaren helburuaz besteko helburuetarako erabili; hau da, osasun-arazo kroniko eta larriak edo mugikortasun-arazoak dituzten eta hirugarren pertsonen etengabeko arreta behar duten senideak zaintzeko.

Baimen hori hartzeari dagokionez, irizpide hauek ezartzen dira:

- Oro har, baimen honi dagokion ordu-kreditu hori erabiltzeko egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehienez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtetearekin batera erabili beharko dira.
- Salbuespen gisa, baimen horren urteko orduak honela hartzea baimendu ahal izango da:
  - oro har ezarritakoez besteko ordu-tarteetan.
  - egun osoetan.

Horretarako baimena emateko, behar bezala egiaztatu beharko da pilatze hori premiazkoa dela. Salbuespenaren justifikazio dokumentala aurkeztu beharko da ahal den guztietan, eta, hori egin ezin bada, erantzukizunpeko adierazpen bat eskatuko da (eredua erantsi da), baimena erabiltzen duenak behar bezala erabiltzeko ardura har dezan.

- Sartzeko edo irteteko ordua aldatzea dakarten kasuetan, lan egindako denbora gehi baimeneko orduak nahitaez bete beharreko ordutegira iritsi beharko dira gutxienez, eta, gehienez, eskatzaileari esleitutako ohiko lanaldira. Egun osoak hartu behar direnean, eskatzaileak esleituta duen lanaldi arrunteko ordu guztiak izango dira baimenekoak (ordutegi malgua + nahitaez egon beharreko ordutegia).
- Baimen hau erabiltzea bateraezina da antzeko baimenekin. Hala ere, baimen hau baliatzen den lanaldian, aldi berean, bestelako lizentzia edo baimenen bat hartzen bada, bi baimenak aplikatzeko eta justifikatzeko irizpideak bete beharko dira.

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.**

Nik,.....

jaunak/andreak, (NAN zk.: .....),

**ADIERAZTEN DUT:**

Adierazpen honetan alegatutako arrazoiak egiazkoak direla eta baimena modu egokian erabiliko dudala.

Salbuespenezko erabileraren justifikazioa (arrazoiak aipatu)

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatzen dut:

.....n, 202...(e)ko .....aren .....n.

### **03.02.03. ERANSKINA. ODOL- EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNeko 2. MAILARAINOKO SENIDEEN ETA BIZIKIDEEN GAIXOTASUN LARRIAGATIKO BAIMENA**

#### **1.– Gertaera eragileak:**

Baimen hau gertakari eragile hauengatik emango da: istripua edo gaixotasun larria, ospitaleratzea, etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa, beti ere iraupena jasota, edo sedazio bidezko proba inbaditzaileak, beti ere eskatzailearen lan-jardunaldiaren barruan egiten baldin bada proba.

Hona hemen definizio batzuk:

- Senide edo bizikide baten gaixotasun larria: Oro har, gaixotasun larritzat joko dira erantsitako txosten medikoaren azterketaz arduratzen den zerbitzu medikoak halakotzat hartzen dituenak.
- Senide edo bizikide baten ospitaleratzea: Ospitaleratzetaz hartuko da, arrazoia edozein dela ere:
  - Ospitaleak pertsona bat formalki onartzea, arreta medikoa emateko, behatzeko, tratatzeko eta sendatzeko. Ospitaleratze orok ospitaleko ohe bat okupatzea eta emandako arreta guztiak erregistratzeko historia kliniko bat mantentzea eskatzen du.
  - Eguneko ospitaleratzeak, baldin eta ebakuntza edo tratamendu mediko bat egiteko gertatzen badira.
  - Senidea larrialdi-zerbitzuan egotea
  - Interbentzio kirurgikoaren ondoren edo fase terminalean etxean ospitaleratzea, hau da, ospitalean egon gabe osasun-profesionalek emandako zainketak, tratamenduak eta arreta berdinak jasotzea, ospitaleratutako pertsonak ospitale-azpiegitura jada behar ez duenean, baina bai jarraipen aktibo eta sarri bat denbora mugatu batez.
  - Proba inbaditzaileak/tratamenduak egitea, sedazioarekin.

#### **2.– Baimen-egunak, ezkontza-ahaidetasunaren graduaren arabera:**

- Ezkontidea, izatezko bikotekidea, semea edo alaba: bost lanegun, eta funtzionarioaren bizilekutik 150 kilometro baino gehiagora gertatzen bada, egutegiko bi egun gehiago.
- Lehen mailako odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak, baita aurrekoak ez diren baina funtzionarioarekin etxebizitza berean bizi diren eta bere zaintza behar duen beste edozein pertsona ere: bost egun baliodun.
- Odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senideak: lau egun baliodun.

**Laburpen taula:**

Senidea	Egun kopurua	150km baino gehiagora bizi baldin bada
Ezkontidea, izatezko bikotea, semea edo alaba	5 lanegun	2 egun natural gehiago
1. mailara arteko senidea edo bizikidea*	5 lanegun	
2. mailara arteko senidea	4 lanegun	

\*Beste edozein pertsona, 1. mailara arteko senidea ez dena, baina funtzionarioarekin etxebizitza berean bizi dena eta bere zaintza behar duena.

**3.–** Baimen hori errekonperatu beharreko beste hiru egunez luzatu ahal izango da. Erabilitako denbora hiru hilabeteko epean berreskuratu beharko da, eskubidea erabili zen hilabetetik zenbatzen hasita, ordutegi malguaren kargura, eta ordu-kontrolaren arduradunei jakinarazi beharko zaie berreskuratze hori, egiazta dezaten.

**4.–** Baimenaren ondorioz eskubidez har daitezkeen egunak elkarren segidan edo txandaka baliatu ahal izango dira, eskatzailearen eskariz; nolahi ere, gertaera eragilea egun zehatz horietan gertatu dela egiaztatu beharko da. Ondorio horietarako, ospitaleratzearen barruan ospitaleratze-eguna eta ospitaleko alta-eguna sartuko dira.

**5.–** Odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen gaixotasun larriaren kasuan, langileak bigarren baimen bat hartzeko eskubidea izango du, iraupen berekoa, lehenengo baimena amaitu eta 30 egun igaro ondoren. Kasu horretan, ez da aplikatuko ohiko bizilekutik 150 kilometro baino gehiagoko distantziagatikoz luzapena.

**6.–** Aurreko baimenetik 30 eguneko epea igaro ez bada ere, beste baimen bat hartzeko eskubidea izango da, honako baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- Jatorrizko baimena eragin zuenaz besteko edozein prozesuk eragindako istripua, gaixotasun larria, ospitaleratzea edo ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoa, eskatzaileak behar bezala egiaztatuta.
- Eragindakoa beste senide bat izatea.

Akreditazio hori egin ezean, birgaixotzetzat joko da kasu guztietan, eta ez da baimen berririk emango.

Nolanahi ere, eskatzaileak, eskaerarekin batera, ahaidetasun- edo bizikidetzaharremanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, bai eta gaixotasun larria dagoela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria, asistentzia mediko profesionala barne hartzen duen etxeko ospitaleratzearen ziurtagiria edo ospitaleratzearen egiaztagiria ere.

#### 03.02.04. ATALA SENIDEEN HERIOTZAGATIKO BAIMENA

Funtzionarioak senide baten heriotzagatik honako baimen-egun hauek hartzeko eskubidea izango du, adierazten den moduan:

- Ezkontidea, izatezko bikotekidea, semea edo alaba: bost lanegun. Heriotza funtzionarioaren bizilekutik 150 kilometro baino gehiagora gertatzen bada, egutegiko bi egun gehiago izango ditu langileak.
- Lehen mailako odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko senidea: hiru lanegun, gertakaria herri berean gertatu bada, eta bost egun baliiodun, funtzionarioaren bizilekua dagoen herritik kanpo gertatu bada.
- Odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senidea: hiru lanegun, herri berean gertatzen bada, eta lau lanegun, beste herri batean gertatzen bada; eta funtzionarioaren bizilekutik 150 kilometro baino gehiagora gertatzen bada, egutegiko egun bat gehiago izango du.

Laburpen taula:

Senidea	Herri bera	Beste herri bat	Beste herri bat 150 km baino gehiagora
Ezkontidea, izatezko bikotea, semea edo alaba	5 lanegun	5 lanegun	2 egun natural gehiago
1. mailara arteko senidea	3 lanegun	5 lanegun	
2. mailara arteko senidea	3 lanegun	4 lanegun	Egun natural 1 gehiago

Oro har, baimena heriotzaren egunean hasiko da nahitaez, baita heriotza beste baimen bat hartzen ari den bitartean gertatzen bada ere; salbuespen hauekin:

1.- Heriotza lanaldia hasi ondoren gertatzen bada, hau da, sarrerako fitxaketa badago, baimena hurrengo egunean hasi ahal izango da, baldin eta funtzionario eskatzaileak:

- nahitaez egon beharreko ordutegia betetzen du, edo



- lanpostua utzi eta esleitutako lanaldi arrunta (ordutegi malgua + nahitaezko presentziaren ordutegia) osatzeko falta den denbora hilabete horretan edo hurrengoan berreskuratzen badu.

Aukera horren berri eman beharko zaio zuzendaritza honi, eskaerarekin eta gertaera eragilea egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

2.- Nahitaezko presentzia-ordutegia amaitu ondoren gertatzen bada heriotza, baimena hurrengo egunean hasiko da.

3.- Heriotza gertatzen den egunean langileak norberaren gauzetarako baimena edo urteko lanaldiaren gaineko soberako orduengatiko konpentsazio-eguna (soberako ordutegia) badu, egun hori heriotzagatiko baimen-eguntzat hartuko da, eta, aldez aurretik eskatuta, norberaren gauzetarako eguna edo gehiegizko ordutegia ezeztatu egingo da.

Baimen hori errekuperatu beharreko beste hiru egunez luzatu ahal izango da. Erabilitako denbora hiru hilabeteko epean berreskuratu beharko da, eskubidea erabili zen hilabetetik zenbatzen hasita, ordutegi malguaren kargura, eta ordu-kontrolaren arduradunei jakinarazi beharko zaie berreskuratze hori, egiazta dezaten.

Baimen horrek amaiera emango die hildako pertsona aintzat hartuta baimendu diren lizentzia eta baimen guztiei.

Baimen-eskaerarekin batera, eskatutako ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen agiria edo agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta heriotza-ziurtagiriaren edo heriotzaren beste edozein egiaztagiriren fotokopia eta, hala badagokio, eskatzailearen errolda-ziurtagiria ere.

### **03.02.05 ERANSKINA.- Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena**

Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak mediku elkargokide batek egindakoak dira. Baimen horren barruan sartzen da honako hauetara joatea:

- Eskatzaileak esleituta duen Osasun Zerbitzu Publikoetako edo Igualekio kontsulta mediko jeneralista edo familia-medikua.
- Medikuek espezialistek kontsulta egitea.
- Erizaintzako, errehabilitazioko eta abarreko zerbitzuei kontsulta egitea, baldin eta kontsulta mediku jeneralistak edo familiako medikuak egin duela egiaztatzen bada.
- Larrialdietako zerbitzurako laguntza
- Proba inbaditzaileak

Baimena eskatzaileari esleitutako lanaldi arruntaren barruan emateko, beharrezkoa izango da baimena ematen duten zentro medikoek kontsulta-ordurik ez izatea eskatzaileari esleitutako eguneroko lanaldi arruntetik kanpo, edo beharra urgentea izatea.

Eskatzaileari esleitutako lanaldi arrunta (nahitaez egon beharreko ordutegia + ordutegi malgua) amaitu ondoren gertatzen diren kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoek ez dute baimenik sorraraziko.

Baimen honen kontura gehienez ere lau ordu erabil daitezke, kontsulta, tratamendua edo miaketa nahiz joan-etorria barne Aurrekoa gorabehera, denbora hori luzatu ahal izango da, eta gertaera eragilea jazotzen den egunean eskatzaileak esleituta duen ohiko lanaldi osoa ere hartu ahal izango da (nahitaezko presentzia-ordutegia + ordutegi malgua), kontsulta, tratamendua edo miaketa egiteko beharrezkoa dela egiaztatzen bada; proba inbaditzaileak badira; medikuak agintzen badu aurretik edo ondoren atsedena hartu behar dela egun horretan; kirurgia txikiak badira; edo, egun berean kontsulta bat baino gehiago badira.

Joan-etorrietarako denbora ebazpen honetako ohar orokorretan ezarritakoaren arabera izango da.

Era berean, funtzionarioek baimena eskatu ahal izango dute honako hauei kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara laguntzeko:

- 2. mailara arteko senideak
- maila urrunagoko senideak, elkarrekin bizi badira eta, beharrezkoa bada, lagundutako pertsonen inguruabarrengatik.

Bi kasuetan, erabilitako denbora lagun egitea gertatu den hilabetean edo hurrengoan berreskuratu beharko da.

Kasu guztietan, inguruabar horiek dagokion bertaratze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira, eta ziurtagiri horretan honako hauek jaso beharko dira gutxienez:

- Kontsulta, tratamendua edo miaketa zer osasun-zentrotan egin den, eta zentro medikoak ez duela ezarrita asistentzia-ordurik eskatzailearen ohiko lanalditik kanpo, edo, hala badagokio, laguntza urgentea zela.
- Zer ordutan sartu eta irten den. Zehaztuta ez badaude, 30 minutu emango dira gehienez.
- Laguntza ematen duen mediku elkargokidearen sinadura edo zigilua, elkargokide-zenbakia adierazita; edo osasun-zerbitzuko dagokion administrazio-unitatearen zigilua.
- Paziente edo laguntzaile gisa joaten den.
- Laguntzaile gisa joanez gero, honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak ere bidali beharko dira:
  - Ahaidetasuna
  - Bizikidetzaren harremana eta lagun egitea beharrezkoa izateko arrazoiak.

Baldintza hauetakoren bat bete ezean eskatutako laguntza ukatu ahal izango da.

### **03.02.06. ERANSKINA NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKO EDO PERTSONAL BAT EGITEKO EZINBESTEKOA DEN DENBORARAKO BAIMENA.**

Funtzionarioek baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute nahitaezko betebehar publiko edo pertsonalak betetzeko, gutxieneko denboran, baina baita nahikoan ere. Horretarako, eskatzaileak egiaztatu beharko du betebehar horiek zertan dautzan eta zenbat iraungo duten, dagokion ziurtagiriaren bidez, non honako hauek jasoko baitira:

- Betebehar zehatza zein den
- Zer egunetarako eskatzen den
- Hasiera-ordua eta amaiera-ordua.

Ondorio horietarako, betebehar bat nahitaezkozat jotzen da ezaugarri hauek baditu:

- pertsonari dagokio, eta bete ezean erantzukizun zibila, penala edo administratiboa eragin liezaioke
- ez du bestelako baimenik sorrarazten
- egoera puntuala da
- ez da iraupen luzekoa
- ez dira behin eta berriz errepikatzen

Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira nahitaezko betebehartzat:

- a) Epaitegi, polizia-etxe edo bestelako administrazio-organoen zitazioak.
- b) NANA edo pasaporteak lortu edo berritzea, betiere lanorduetatik kanpo egitea ezinezkoa dela egiaztatzen bada.
- c) Gidabaimena lortzeko edo berritzeko azterketa, baldin eta lan-ordutegitik kanpo egitea ezinezkoa dela egiaztatzen bada.
- d) Minusbaliotasun psikiko edo fisikoren bat duten odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei beren egoerari dagozkion izapide zehatzak egiten laguntzea. Halakotzat hartuko dira artikuluko honetako a eta b idatz-zatietan adieraziak.

- e) Gobernu organoen eta horien menpeko batzordeen bileretara joatea, horietako zinegotzi, diputatu, batzarkide edo legebiltzarreko hautetsi gisa.
- f) Estatuko, autonomia-erkidegoetako, tokiko edo sindikatueta hauteskundeetan mahaietako kide gisa jardutea.
- g) Administrazioaren organoen aurreko zitazioak (Ogasuneko Ikuskaritza, Lan Ikuskaritza, etab.), organo horiek eskatutakoak.
- h) Langileak hautatzeko eta hornitzeko epaimahaietara joatea
- i) Profesionalen elkargoetan kargu edo kide gisa jardutea.
- j) Adopzio- edo harrera-kasuetan, informatzeko eta prestatzeko nahitaezko saioretara joatea, bai eta egokitasun-adierazpenaren aurreko txosten psikologikoak eta sozialak egitekoetara ere, nahitaezkoak badira eta lanaldiaren barruan egin behar badira.
- k) Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren bileretara joatea, horrek eskatzen dionean.

Baimena eragin duen gertakaria langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutirago gertatzen bada, baimenari egutegiko bi egun gehiago erantsiko zaizkio (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

Ez da nahitaezko betebehartzat hartuko:

- a) Errenta-aitorpena egitea
- b) Notarioekiko hitzorduetara joatea, salbu eta deitutako egunean eta orduan bertaratu ezean – ordutegia aldatzeko aukerarik gabe– erantzukizun penala, zibila edo administratiboa sortzen bada, edo behar bezala egiaztatzen bada notariotzak ez duela jendaurreko arreta-ordurik ezarrita eskatzaileari esleitutako eguneroko lanaldi arruntetik kanpo; kasu horretan, nahitaezko betebeharrerako baimenaren barruan dagoela ulertuko da.
- c) Abokatzako jarduneko profesional elkargokideekiko hitzorduetara joatea.
- d) Seme-alaba adingabeen irakasleekiko tutoretzetara edo bileretara joatea.

Hala ere, funtzionarioak hitzordu horietara joan ahal izango dira, eta erabilitako denbora hilabete berean edo hurrengoan berreskuratu beharko dute. Modalitate hori zerbitzuaren beharren mende dago, eta, beraz, Zuzendaritza honen alde aurreko baimena behar izango da.

### **03.02.07. ERANSKINA ZENTRO OFIZIALETAN AZKEN AZTERKETAK ETA GAINERAKO BEHIN BETIKO GAITASUN ETA EBALUAZIO PROBAK EGITEKO BAIMENA.**

Funtzionarioek gutxieneko denbora, baina baita nahikoa ere, hartzeko eskubidea izango dute zentro ofizial edo homologatuetan azterketak eta behin betiko egokitasun-probak egiteko. Amaierako azterketak eta behin betiko gaitasun- eta ebaluazio-probak dira programaren zati baten amaierako izaera edo liberazio partzialeko izaera dutenak. Baimen hori ez dute sorraraziko gertakari hauek:

- Zentro ofizialetan egiten ez direnak.
- Lan-poltsetan sartzeko egiten direnak.
- IT txartelak
- Ofizialak ez diren ikasketekin lotutako azterketak edo probak
- Eskatzailearen eguneko lanaldi arrunta amaitu ondoren gertatzen diren azterketak eta probak eta, kasu guztietan, 17:00etatik aurrera edo lanegunak ez diren egunetan egiten direnak.

Zentro ofizialetan amaierako azterketak eta gainerako behin betiko gaitasun- eta ebaluazio-probak egitera joateko baimena hedatu egingo da funtzionario eskatzailea izendatuta dagoen kidegoan edo barne-sustapenaren bidez sartu nahi den kidegoan sartzeko hautaketa-probetara.

Oro har, sistema honetako gai komunetan ezarritakoaren arabera kontuan hartutako joan-etorrien denboraren eta azterketa edo probaren denboraren batura sartuko da baimenean, eta azterketa edo proba egiten den lanegun osoa hartu ahal izango du, betiere behar hori egiaztatzen bada.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, azterketara joan izanaren egiaztagirian inguruabarrak eta, edozein kasutan, azterketaren tokia, eguna, ordua, ikastetxea eta gaia jaso beharko dira. Bestela, baimenaren iraupena 45 minutukoa izango da gehienez.

Azterketak nahitaez, eta ez eskatzaileak aukeratuta, bizilekutik 150 km baino urrunago egin behar badira, baimen hori egutegiko beste bi egun gehiagoz luzatu ahal izango da joan-etorrietarako (bata joateko eta bestea etortzeko); bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

Bigarren paragrafoan adierazitakoez besteko administrazio eta erakunde publikoetako kidego eta eskaletan sartzeko hautaketa-probak egitera joateko behar den denbora emango da, eta absentzia gertatu den hilabeteko edo hurrengoko ordutegi malguaren kargura berreskuratu beharko da.

### **03.02.08. ERANSKINA BIZILEKUZ ALDATZEAGATIKO BAIMENA.**

Funtzionarioek bi laneguneko baimena hartzeko eskubidea izango dute etxebizitzaz aldatzeagatik. Baimen hori gehienez hamabost laneguneko epean baliatu beharko da, erroldatze-datatik zenbatzen hasita.

Baimena emateko, zerbitzuaren beharrak behar bezala bete beharko dira. Hori dela eta, eskatzaileak, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- lan egiten duen bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren aldeko txostena
- errolda-ziurtagiria.

Pertsona berak urtean behin baino gehiagotan erabili behar badu baimen hori, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu urteko bigarren eskaeratik aurrera:

- lan egiten duen bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren aldeko txostena
- errolda-ziurtagiria
- eskatzailearen, haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen izenean erositako etxebizitza berria edo alokairu-kontratua egiaztatzen duen agiriaren kopia.

### **03.02.09. ERANSKINA BATAIO ETA JAUNARTZEETARAKO BAIMENA**

Funtzionarioek bigarren mailara arteko senideen bataioa edo jaunartzea egiten den egunari dagokion baimena hartzeko eskubidea izango dute, baldintza hauek betetzen direnean:

- Ekitaldia lanegunean egiten bada
- Espainiako Estatuarekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatuta dituzten erlijio-konfesioetako batek egiten badu ekitaldia.

Hori izapidetzeko, bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren alde aurreko txostena eskatzen da, zerbitzuaren beharrei buruzkoa, eta hura emateko baldintza izango da premia horiek benetan betetzea eta gertaera eragilea egiaztatzea; horretarako, zeremoniaren buru izan den konfesioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.



**03.02.10. ERANSKINA FUNTZIO SINDIKALAK, PRESTAKUNTZA SINDIKALEKOAK EDO LANGILEAK ORDEZKATZEKOAK EGITEKO BAIMENA.**

Sindikatu en edo langileen ordezkari-lanak egiten dituztenek dagokien baimena hartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudiaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eskubide sindikalei eta jarduera sindikalari buruzko Esparru Akordioan jasotako klausulen arabera. Akordio hori Lan Zuzendaritzaren 1988ko azaroaren 7ko Ebazpenaren bidez gordailutu eta argitaratu zen.

Nolanahi ere, akordioa negoziatzeko mahaian parte hartzen dutenek baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute, mahaiko idazkariak ofizialki deitutako bileretara joateko, negoziazio kolektiboa gauzatu bitartean.

### **03.02.11. ERANSKINA KARGU HAUTETSIARI DAGOZKION FUNTZIOAK BETETZEKO BAIMENA.**

Kargu hautetsi instituzionala duten funtzionarioek baimena izango dute kargu horren ondoriozko eginkizunak betetzeko, baldin eta betebeharrak saihestezin bat betetzeko baimenean sartuta ez badaude; horretarako behar den denbora izango dute, betiere guztira urteko lanaldiaren ehuneko hamar gainditzen ez bada. Baimen hori dela-eta hartutako denborak ez du ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango, eta dagozkion orduak errekuaratu beharko dira, lizentzia erabiltzen den hilabeteko edo hurrengoko ordutegi malguaren kontura.

Eskabidearekin batera, kargu hautetsi instituzionala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

### **03.02.12. ERANSKINA EZKONTZAGATIKO EDO IZATEZKO BIKOTEEN ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO IZATEZKO BIKOTEA ERATZEAGATIKO LIZENTZIA.**

1.– Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera, ezkontzen diren edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako izatezko bikotea osatzen duten funtzionarioek egutegiko hogeit eguneko baimena hartzeko eskubidea izango dute. Egun horien artean, nahitaez, ezkontza egiten den eguna edo bikote gisa erregistroan inskripzioa egiten den eguna egongo da.

Baimen hori oporraldiari gehitu ahal izango zaio, gutxienez hamabost egun lehenago Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazita.

Ezin izango da ezkontzagatiko edo izatezko bikotea eratzeagatiko baimen berririk eman, harik eta gutxienez sei urte igaro arte ezkontza eratu zenetik edo aurreko baimena eragin zuen izatezko bikote gisa erregistroan inskribatu zenetik, eta inola ere ez bikotea osatzen duten kideak berdinak direnean, salbu eta ezkontza jadanik eratutako izatezko bikote batena bada eta kideetako batek ere ez badu lizentzia hori hartu.

2.– Ezkontza edo izatezko bikotea odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senideek formalizatzen dutenean, ezkontza egiten den edo Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzioa formalizatzen den egutegiko eguna hartzeko eskubidea izango dute funtzionarioek. Baimena eragin duen gertakaria eskatzailearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutirago gertatzen bada, baimenari egutegiko bi egun gehiago erantsi dakizkioke (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

3.– Egiaztagiriak izango dira ezkontzaren Erregistro Zibileko inskripzioa edo Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako inskripzio-ziurtagiria. Ezkontzaren kasuan edo senideen izatezko bikotea eratzearen kasuan, aurreko dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen ziurtagiria
- eskatzailearen errolda-ziurtagiria, joan-etorriengatiko luzapena erabili nahi bada.

### **03.02.13. ERANSKINA.- PRESTAKUNTZA- ETA HOBEKUNTZA- IKASTAROAK EGITEKO ETA EKITALDI KOLEKTIBO ZIENTIFIKO, TEKNIKO EDO PROFESIONALETARA JOATEKO LIZENTZIA.**

Bete beharreko eginkizunekin edo lanpostuarekin zerikusi zuzena duten prestakuntza eta hobekuntza profesionalerako lizentziak eta ekitaldi kolektibo zientifiko, tekniko edo profesionaletara bertaratzeko lizentziak emateko aukera izango da.

**1.-** Prestakuntzatzat jotzen da zerbitzu publikoa eta funtzionarioen garapena hobetuko duten ezagutzak, portaerak, jarrerak eta balioak eskuratzeko ikaskuntza planifikatua.

Prestakuntza hori prestakuntza-zentro ofizialetan sustatu edo eman beharko da.

Baimen horrek berekin dakar arauz ezarritako zerbitzua betetzeagatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

**2.-** Era berean, lizentzia hori eman ahal izango da kongresu, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, elkarrizketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta izaera zientifiko, tekniko edo profesionaleko bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko, funtzionarioen ekimenez Zuzendaritza honek baimena eman ondoren.

Lizentzia mota horren iraupena ekitaldiaren iraupenaren araberakoa izango da. Hala ere, lizentzia hori gehienez ere bost egunez izango da ordaindua. Muga hori gainditzen bada, ez da inolako ordainsaririk edo kalte-ordainik ordainduko, eta eskatzaileak ordaindu beharko ditu gastu guztiak.

Baimena baliatzen hasteko aurreikusitako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago egin beharko da eskaera, eta programarekin batera aurkeztu beharko da, honako hauek adierazita:

- antolatzailea
- zer datatan izango den
- eskola-orduen kopurua
- ikastaroaren edukia

**3.-** Bi modalitateetako gai komunak

Bi kasuetan, prestakuntza-jarduerak lotura zuzena izan beharko du funtzionario eskatzailearen kidegoari dagozkion funtzioekin, eta haren prestakuntza osatu funtzio horietan jarduteko.

Lizentzia hori, edozein modalitatetan, zerbitzuaren beharrak behar bezala betetzearen baldintzapean geratzen da, eta, beraz, eskaerarekin batera hori egiaztatzen duen bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren aldeko txostena aurkeztu beharko da. Era berean, aurrekontu-baliabideen mende geratzen da.

Langile guztiek prestakuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko, honako irizpide hauek ezartzen dira:

**A.-** Oro har, urtean gehienez bi prestakuntza-jarduera eman ahal izango dira. Zenbaketa horretatik kanpo geratzen dira:

a.- Zuzendaritza honek eskatuta egin behar diren prestakuntza-jarduerak, betetzen duten lanpostu zehatzari dagozkion helburuak betetzeko interesgarriak direlako.

b.- Emakundek, IVAPek edo Eusko Jaurlaritzako sailek antolatutako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-jarduerak.

c.- Euskarazko hizkuntza-prestakuntzako ikastaro espezifikoak, euskararen erabilera planean sartutako langileak birziklatzekoak edo euskarazko testuak sortzea sustatzekoak.

**B.-** Jarraitu beharreko prozedura:

a.- Epearen amaiera-data baino lehen, edo, hala badagokio, gutxienez hamabost egun lehenago, 2. zenbakian ezarri bezala, interesdunek aurrez izena eman ahal izango dute, GEPEIZUren bidez, dagokion eskaera izapidetuz, prozedura hori behar bezala ezarrita dagoenean. Ordura arte, eskaerak posta elektronikoz egingo dira, [r-humanos@euskadi.eus](mailto:r-humanos@euskadi.eus) helbidean, eta honako hauek jasoko dira gaian: "(ikastaroaren izena) ikastarorako aurreinskripzioa".

b.- Eskabidea jaso ondoren, ebazpena emango da, eta interesdunari zuzenean jakinaraziko zaio onartu den ala ez, bai EIZU-Langilearen Atariaren bidez, bai eskaera bidaltzeko erabili zen posta elektronikoaren bidez.

Eskabidea beste moduren batera aurkeztuz gero ez aurkeztutzat joko da.

c.- Prestakuntza-jardueretan, eskabideek gainditu egiten badute erabilgarri dagoen plaza-kopurua edo aurreikusitako aurrekontu-zenbatekoa, lehentasun-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

c.1.- Prestakuntza-jarduerak lanpostuan betetzen diren funtzio eta zereginekin duen lotura-maila.

c.2.- Ikastaroa lehenago zenbat aldiz eskatu den.

c.3.- Eskaeraren sarrera-ordena.

c.4.- Zozketa.

**C.-** Pertsona batek prestakuntza-ekintza bat egiteko baimena badu eta ez badu betetzen % 80tik gorako bertaratzea edo ez badu betetzen hura emateko deialdi zehatzak eskatzen duena, urtebetez galduko du lizentzia horren edozein modalitate eskatzeko eskubidea, bertaratze-eza honako arrazoi hauengatik gertatzen ez bada:

- gerora sortutako aldi baterako ezintasuna
- erditze, aitatasun, adopzio edo harreragatiko baimenaren hasiera
- senide bat ospitaleratzea
- senide baten heriotza

Era berean, zirkunstantzia horiek Zuzendaritza honen berezko prestakuntza-eskaintzari buruzkoak direnean, ez zaio dagokion ziurtagiria emango.

### 03.02.14. ERANSKINA.- NORBERAREN GAUZETARAKO LIZENTZIA

#### 1.- Gogoeta orokorrak

Lizentzia hau, edozein modalitatetan, soldatarik gabeko lizentzia da, eta, beraz, ez du inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango. Era berean, lizentzia-denbora ez da kontuan hartuko oporrak eta baimenak kalkulatzeko (norberaren gauzetarako baimena eta urteko lanaldiaren gaineko soberako orduen konpentsazioa).

Zerbitzu aktiboan urtebete jarraian eman ondoren baino ezin izango da eskatu.

Era berean, lizentzia emateko, zerbitzuaren beharrak behar bezala bete beharko dira. Hori dela eta, izapideak egiteko, nahitaezkoa da bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunaren alde zuzeneko txostena aurkeztea, behar horien benetako estaldurari dagokionez.

Zenbaketa horren ondorioetarako, hasieratik amaierara bitarteko egunak hartuko dira lizentziako eguntzat, lanegunak ala jaiegunak diren kontuan hartu gabe. Hala ere, hilabete osoetan emandako lizentzien eta aldi zatikatuetan emandakoen arteko konparaziozko bidegabekeria saihesteko, ez da zazpi egun natural baino gutxiagoko lizentziarik emango.

Ondorio ekonomikoei dagokienez, honako formula hau aplikatuko da:

Hileko lansari osoa + Seihilekoko aparteko pagaren lansaria

hileko egutegi-egunen kop. seihilekoko egutegi-egunen kop.

Lehen batugaia baimena baliatzen den hilabeteko nominatik deskontatuko da eta, bigarrena, berriz, hilabete horren ondoren ordaindu beharreko lehen aparteko pagatik.

#### 2.- Modalitateak

**2.1.-** Oro har, iraupen metatua ezingo da lau hilabetetik gorakoa izan bi urtean behin. Hala ere, gehieneko epe hori lau hilabetetik beherako aldietan zatitu ahal izango da. Bi kasuetan, bi urteko epea lizentzia hasten den egunetik zenbatuko da, honela:

- Lizentzia modu jarraituan ematen bada, ezin izango da izaera bereko beste lizentziarik eman hasiera-data horretatik bi urte igaro arte.

- Lizenzia lau hilabetetik beherako aldietarako ematen bada, hasten den egunean hasiko da epea zenbatzen, eta lau hilabete osatu arte eman ahal izango dira norberaren gauzetarako lizentziak, bi urtez, lizenzia hasten den egunetik zenbatzen hasita.

**2.2.-** Norberaren gauzetarako lizenzia ikasketa ofizialak egiteko eskatzen bada, urtean lau hilabete jarraian eman ahal izango da, behin bakarrik. Kasu horretan, eskaerarekin batera, gertaera eragilea egiaztatzen duen ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

**2.3.-** Garapen bidean dagoen herrialderen batean, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen babespean, misioaren bat egiteko eskatzen bada lizenzia, gutxienez lau hilabetekoa izango da, eta haren iraupen metatua bost urtean bi urtekoa izango da gehienez. Kasu horretan, eskaerarekin batera, alegatutako gertaera eragilea egiaztatzen duen gobernuz kanpoko erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

**2.4.-** Karrerako funtzionarioek, gainera, norberaren gauzetarako lizenzia eskatu ahal izango dute, sei hilabetekoa edo urtebetekoa, eta lizenzia hori bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Ezin izango da horrelako beste eskaririk egin baimena amaitu eta bost urteko benetako zerbitzuan aritu arte.



### **03.02.15. ERANSKINA. PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEAGATIKO LIZENTZIA**

Hautaketa-probak gainditu ondoren praktiketako funtzionario izendatzen dituzten eta Justizia Administrazioan funtzionario gisa lan ordaindua egiten duten pertsonak aparteko lizentzia bat eskatzeko eskubidea izango dute egoera horrek dirauen aldian, eta indarrean dagoen araudiak praktiketako funtzionarioentzat ezarritako ordainsariak jasoko dituzte.

Eskaerarekin batera, Justiziako Estatuko Idazkaritzak praktiketako funtzionario izendatzeko emandako Ebazpena aurkeztu beharko da.

### **03.02.16. ERANSKINA. KONTINGENTZIA ARRUNTENGATIKO EDO LANEKOA EZ DEN ISTRIPUAGATIKO GAIXOTASUN-LIZENTZIA.**

Kontingentzia arruntengatiko edo lanekoa ez den istripuagatiko gaixotasunek lizentzia honetarako eskubidea emango dute, baldin eta langileak esleituta dituen eginkizunak behar bezala betetzea eragozten badute.

Funtzionarioek absentzia gertatzen den eguneko lanaldian edo hurrengo lanegunean jakinarazi behar diote bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunari ezin direla gaixotasunagatik lanera joan, absentzia lanaldia amaitu ondoren edo laneguna ez den egun batean gertatzen bada.

Era berean, dagokion gaixotasun-lizentziaren eskaera izapidetu beharko du Zuzendaritza honetan, lanpostuan absentzia gertatu eta egutegiko laugarren egunera bitartean. Epe bera bete beharko da baja-jarraipenaren parteak aurkezteko, halakorik izanez gero. Eskaerarekin batera, medikuaren baja-partea aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, baja-jarraipenaren parte.

Bai hasierako lizentzia emateko, bai luzapenak emateko, baja-partea edo gaixotasuna eta lanera joateko ezintasuna egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da. Hasierako lizentzia hasierako bajako partearen datatik (lanera joan gabeko lehen egunetik) emango da, medikuak sendatzeko aurreikusten duen aldirako, baina inola ez hamabost egun baino gehiagorako. Gaixotasun-egoerak jarraitzen badu, jarraipen-partea aurkeztuta hasierako lizentzia luzatu egingo da, eta ondorioz gabe geratuko da sendatzeko aurreikusitako eguna baino lehen sendatzen bada.

Sendatzea eta, ondorioz, lanpostura itzultzea medikuek sendatzeko aldi probable gisa adierazitako aldiaren barruan gertatzen bada, funtzionarioak nahitaez eta berehala izapidetu beharko du alta-partea, lanera itzuli aurreko egunari dagokiona.

Prozesu patologiko beraren ondoriozko gaixotasun-lizentziak emango dira, 12 hilabeterako gehienez, eta beste sei hilabetez luzatu ahal izango dira, hilabete horien barruan langilea sendatu ahal izango dela eta alta medikoa jaso ahal izango duela uste denean. Ondorio horietarako, gaixotasunagatiko lizentzia berria dagoela ulertuko da prozesu patologikoa desberdina denean eta, nolana ere, gutxienez urtebetez jardun ahal izan denean.

Gaixotasunagatiko lizentziaren lehen 12 hilabeteak amaitu aurretik, ezintasun iraunkorreko espedienteak irekiko da, Gizarte Segurantzako Ezintasunak Balioesteko Taldearen kontura.

Ezintasunak Balioesteko Taldeak ezintasuna ebaluatzeko prozedurak bideratu ditzan, honako egintza eta txosten hauek egin beharko dira nahitaez:

Aldi baterako ezintasuneko egoeran dagoen pertsonaren edo haren legezko ordezkariaren aldez aurreko baimenarekin, Ezintasunak Balioesteko Taldeari osasun-laguntzako alta medikoa eta historial klinikoa ematea, Osasun Zerbitzuak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzako Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak, enpresa laguntzaileak edo eraginpeko pertsonak berak bidalitakoa, aldi baterako ezintasuna erakunde horiek estaltzen dieten afiliatuen kasuan, edo, halakorik ezean, Osasun Zerbitzuaren Ikuskaritza Medikoaren txostena.

- a) Ezintasunak Balioesteko Taldeak gaixotasun-lizentzia duen pertsonari deituko dio. Deitutako pertsona behartuta egongo da hitzordu horretara joatera. Agertu ezean, gaixotasun-lizentzia berehala amaituko da, eta, beraz, agertu ez eta hurrengo egunean itzuli beharko du lanera.
- b) Ohiko berrikuspenaren ondoren eta eraginpeko pertsonak dituen txosten medikoak aztertu ondoren, Ezintasunak Balioesteko Taldeak proposamen-irizpen bat emango du, eta organo eskudunari helaraziko dio, dagokion ebazpena eman dezan.
- c) Eragindako pertsona ez badago ados proposatutako irizpenarekin, errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Ezintasunak Balioesteko Taldeari, hark zehaztutako epean.
- d) Aurkeztutako alegazioak ebaluatu ondoren, halakorik badago, Ezintasunak Balioesteko Taldeak behin betiko proposamena helaraziko dio organo eskudunari, dagokion ebazpena eman dezan.

Aldi baterako ezintasunaren espedientea izapidetzen den bitartean, ez da baja-parte medikorik onartuko eraginpeko pertsonari dagokionez. Ondorio horietarako, interesdunak ez du baja-parte medikorik aurkeztu beharko espedientea osorik izapidetzen ari den bitartean, eta dagokion lizentzia hura amaitu arte luzatuko da.

Baldin eta ezintasun-espedientea amaitu ondoren:

- Ezintasun iraunkorra ematen bada, eraginpeko langileen erretiroa ebatziko da.
- Ezintasun iraunkorra ukatzen bada, eraginpeko pertsonak bere lanpostura itzuli beharko du Ezintasunak Balioesteko Taldeak proposatutako behin betiko irizpena jaso eta hurrengo egunean, salbu eta sendatzeko edo eragindako langileen egoera hobetzeko aurreikuspenegatik Ezintasunak Balioesteko Taldeak tratamendu medikoarekin jarraitu behar duela adierazten badu eta horri buruzko txosten arrazoitua ematen badu. Aldi baterako ezintasun-egoera luzatu ahal izango da organo horrek zehazten duen aldian, baina inoiz ez sei hilabete baino gehiago.

Kasu horretan, ez da baja-parte medikorik onartuko 180 eguneko epean, patologia beragatik edo antzekoagatik.

Ezintasunak Balioesteko Taldeak hala erabakitzen duen salbuespenezko kasuetan, arrazoi beragatik aparteko luzapena eman ahal izango da, 30 hilabetekoa gehienez, gaixotasun-lizentzia hasi zenetik.

Aldi baterako ezintasun-egoera ez da inoiz hogeita hamar hilabetetik gorakoa izango, hasierako lizentzia eskatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gaixotasunagatiko lizentzietan, funtzionarioen eskubide ekonomiko guztiak mantenduko dira hasierako lizentzia eskatu eta lehenengo sei hilabeteetan, baldin eta prozesu patologiko beretik eratorriak badira, modu jarraituan edo gehienez hilabeteko etenaldiarekin.

Ehun eta laurogeita batgarren egunetik aurrera, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 20. artikuluko 1.B apartatuan ezarritako subsidioa aplikatuko da (Justizia administrazioaren zerbitzupeko langileen Gizarte Segurtasunaren erregimen bereziari buruzko indarreko lege xedapenen testu bategina onartzeko LEDa).

Ezein kasutan mutualismo administratiboak kudeaturiko gizarte-segurantzaren araubide berezietara atxikitako funtzionarioek ezin jasoko dute, gertagarri arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunaren egoeran, gizarte-segurantzaren araubide orokorrera atxikitako funtzionarioei dagokien baino zenbateko txikiagoa, barne harturik, hala badagokio, azken horiei aplikatzekoak zaizkien osagarriak.

Gaixotasunagatiko lizentziak irauten duen bitartean, aldi baterako ezintasun-egoeran egongo ez balira legokiekeen edozein ordainsari-igoera aplikatuko zaie funtzionarioei, hiru urtekoak betetzeagatiko ordainketa barne.

Funtzionarioek gaixotasun-lizentzia duten bitartean, Zuzendaritza honek dagokion ikuskaritza medikoari eskatu ahal izango dio gaixotasun-prozesua berrikus dezan, lizentzia ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirautela zehazteko; edo, hala badagokio, gaixotasunaren edo istripuaren egoeraren jarraipena eta egiaztapena egin ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen osasun-azterketen bidez, osasun-egoera ezagutzeko, beharrezkoa den laguntza emateko eta gaixotasunagatiko lizentzia erabiltzen ari ziren langileak erabat eta laster sendatzeko.

Azterketa horiei uko egiteak berekin ekar dezake Administrazioak ordaintzen zituen laguntza ekonomiko osagarriak galtzea, interesdunari entzunaldi-izapidea idatziz egin ondoren.

**03.02.17 ERANSKINA.- BERRESKURATU BEHARREKO BAIMEN ORDAINDUA, COVIDAREN ONDORIOZ KONFINAMENDU-EGOERAN DAUDEN ADINGABEENGATIK.**

Baimen hori hartu ahal izango dute COVIDak eragindako konfinamendu baten ondorioz eskolatuta dauden 14 urtetik beherakoak beren kargura dituztenek.

Kasu horietan, lanpostutik kanpo egotea baimenduko da, baina absentzia-denbora hori osorik berreskuratu beharko da, lau hilabeteko epean.

Egoera hori, bestelako dokumentaziorik ezean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez justifikatuko da kasu guztietan. Adierazpen horretan jasoko da ezen, beste gurasoak, halakorik bada, ezin duela adingabearen edo adingabeen ardura hartu.

Bi gurasoak administrazio honetako langileak badira, ezin izango dituzte neurri horiek biek batera baliatu.

Baimen hori lanaldi osoen arabera erabili beharko da, edo, bestela, gutxienez lau orduko lanaldi-zatien arabera. Baimen horren gehieneko muga ez da aste natural batetik gorakoa izango.

### **03.02.18.ERANSKINA.- SEME-ALABA EDO ETXEAN HARTUTAKO ADINGABEA (BERAREKIN URTEBETE BAINO GEHIAGO BALDIN BADARAMA) ZAINTEKO GURASO-BAIMENA ADINGABEAK ZORTZI URTE BETE ARTE**

Funtzionarioek baimena hartzeko eskubidea izango dute seme-alabak edo familian hartutako adingabeak (berarekin urtebete baino gehiago badarama) zaintzeko, gehienez ere zortzi astekoa, adingabeak zortzi urte bete arte.

#### **1. Eskubidea baliatzeko eskubidea izango dute:**

Gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek, gizonak edo emakumeak, eta ezin izango da haien egikaritza transferitu.

#### **2.- Baimenaren iraupena**

Baimenak zortzi aste iraungo du gehienez, eta betiere adingabeak zortzi urte bete aurretik.

#### **3.- Baliatzeko modua**

Honela hartu ahal izango da baimena:

- Jarraitua
- Etena

Lanaldi-erregimena honelakoa izan daiteke:

- Lanaldi osokoa
- Lanaldi partzalean, zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen dutenean.
- Lanaldi partzialaz gozatzeko aukerak indarrean dagoen hitzarmenean aurreikusitakoetara mugatu beharko dira.

#### **4.- Baimena eskatzea**

Zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean, gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek zehaztu beharko dute noiz hasiko eta amaituko den baimena edo, hala badagokio, noiz hartuko diren baimen-aldiak, eta hamabost egun lehenago jakinarazi beharko diote Justizia Administrazioako Zuzendaritzari.

#### **5.- Bulego edo organoko arduradun funtzionalaren oniritzia.**

Baimen-eskaerak beti edukiko beharko du bulego edo organoko arduradun funtzionalaren oniritzia.

#### **6.- Baimena atzeratzea**

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak baimen hori ematea atzeratu ahal izango du arrazoizko aldi batez, organo edo bulego horretako arduradun funtzionalaren idatzizko justifikazio-txostena egin ondoren, honako inguruabar hauek guztiak gertatzen direnean:

Bi gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek bulego edo organo berean lan egiten badute.

Subjektu eta gertaera eragile beragatik eskatzen bada.

Eskatutako aldian guraso-baimena hartzeak nabarmen aldatzen badu bulegoaren edo organoaren funtzionamendu egokia.

Beste aukera malguago bat eskaini baldin bazaio eta ez badu onartu.

#### **7.- Gai orokorrak**

Baimena asteka hartu ahal izango diren arren (asteak jarraituak edo etenak), aste osoak hartu beharko dira. Hori dela eta, baimen hori hartzeak astebete oso bati (7 egun natural) dagokion lansaria galtzea ekarriko du, astean jaiegunak egon ala ez.

Baimen hori baliatzen den bitartean, Gizarte Segurantzako kotizazioei eutsiko zaie, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Gainerako kontingenteak ez dira murriztuko.

## 4. ATALA.- ORDUTEGI-KONTROLA

### 1.- Sarrera eta irteera guztiak fitxatzeko betebeharra

#### 1.1.- Fitxaketak

Ordutegi-kontrolako baliabide mekanizatuak dituzten egoitzetan lan egiten duten langile guztiek lantokiko sarrera eta irteera guzti-guztiak fitxatu behar dituzte, lan-arrazoiengatik izan edo ez. Betebehar hori eguneroko etenaldiari ere badagokio.

#### 1.2.- Txartel magnetikoak

Horretarako, ordutegi-kontrolako baliabide mekanizatuak instalatu diren egoitza judizialeetan lan egiten duten langile guztiek txartel magnetiko pertsonala eta besterenezina izango dute. Debekatuta dago txartel magnetikoa inori lagatzea, aldi baterako bada ere.

Lanpostuaz jabetzean, langilea destinatuta dagoen lurralde historikoari dagokion EATak txartel magnetikoa emango dio. Egun horretan bertan, lanpostuaren sarrera eta irteera fitxatu beharko ditu.

Inork ezin izango du horrelako txartel bat baino gehiago eduki. Edozein arrazoiengatik hori gertatuko balitz, eraginpeko pertsonak berehala itzuli beharko du antzinasun handiena duen txartela, lan egiten duen lurralde historikoko EATan.

#### 1.3.- Txartel magnetikoa galtzea, hondatzea edo ahaztea.

Txartel magnetikoa galdu edo erabilezin bihurtzen bada, langileak lan egiten duen lurralde historikoko EATko ordutegi-kontrolaren arduradunari jakinarazi beharko zaio.

Txartela galdu, baliogabetu edo ahazteagatik fitxaketarik egiten ez bada, berehala izapidetu beharko da, GEPEIZU langilearen atarian ezarritako mekanismoen bidez. Mekanismo horiek langilearen atarian erabat ezarri arte, langileak destinoa duen lurralde historikoko EATan izapidetu beharko dira, posta elektronikoz.

Ez da izapidetzeko beste biderik onartuko.

#### 1.4.- Txartel magnetikoa itzultzea

Funtzionarioak honako kasu hauetan itzuli beharko du txartel magnetikoa:

- a. Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionario-kargua uztea.
- b. Justiziaren Administrazioaren zerbitzuko funtzionario izaera galtzea.



- c. Bere destinoa uztea beste destino bat lortu duelako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionario gisa, beste autonomia-erkidego batean, beste lurralde batean edo ordutegi-kontrolerako baliabide mekanizaturik ez duen egoitzako organo judizial batean.
- d. Zerbitzu berezien egoerara igarotzen bada.
- e. Borondatezko eszedentzia hartzen badu, BJLOaren 510. artikuluan araututakoari jarraiki.
- f. Eginkizun-gabetzea.

## **2.- Ordutegi-kontrolerako baliabide mekanizaturik gabeko egoitzetan lan egiten duten langileen ordutegi-kontrola izapidetzeko betebeharra**

Ordutegi-kontrolerako sistema mekanizaturik ezarri ez den egoitzetan lan egiten duten langile guztiek lanpostura sartzeko ordua izapidetu beharko dute sarreran eta irteeran, GEPEIZU langilearen atarian ezarritako mekanismoen bidez. Mekanismo horiek langilearen atarian erabat ezarri arte, langileak destinoa duen lurralde historikoko EATan izapidetu beharko dira, posta elektronikoz. Ez da izapidetzeko beste biderik onartuko.

## **3.- Presentzia eta ordutegia kontrolatzea Komunikazio eta Beteazpen Ekitaldien Zerbitzu Arruntetan.**

Lantoki horietan jarduten duten langileek lanaldiaren hasiera eta amaiera jasota utzi behar dituzte, jarduten duten eraikineko sarrera eta irteera fitxatuz.

Aurrekoa gorabehera, egoitza judizialek kanpo eginbide edo jarduketa prozesal urgenteak edo atzeraezinak egiteagatik lanaldia ezarritako ordutegi finkotik harago luzatu behar bada, ez da nahitaezkoa izango destinoko egoitza judizialera itzultzea irteera erregistratzeko; hala ere, kasu horretan, bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunak dagokion intzidentzia-partea bete eta ikus-onetsi beharko du, eta hurrengo astegunean dagokion Lurraldeko Kudeaketa Unitate Teknikoari edo Justizia Administrazioako Zuzendaritzari helaraziko dio, jasota gera dadin.

## **4.- Ezohiko kontrolak**

Ordutegia betetzeko kontrol arruntez gain, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak presentziako kontrol zehatzak edo unean unekoak egin ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen baliabideen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden organo judizialeko bisita-erregimena ezarriz, eremu jakin horretan ezarrita dauden lanaldia eta ordutegiak zehatz-mehatz betetzeko helburuarekin.

## **5.- Eraikin judizialetan sartzea**

Ordutegi-kontrolako baliabide mekanizatuak ezarri diren eraikin judizialtako egoitzetan sartzeko, funtzionarioentzako sarbideak baino ez dira erabiliko. Baimendu gabeko beste edozein tokitatik sartuz gero ordutegi-kontrolako sistemak ez direla bete ulertuko da.

Guardiako eginkizunetan jarduten dutenek Guardiako Epaitegitik sartu beharko dute, sarbide hori gaituta duten eraikinetan, edo funtzionarioentzako sarbidetik, ez dutenetan.

## **6.- Ordutegi kontrolako gorabeheren kudeaketa**

Bulego edo zerbitzu judizialeko arduradunari jakinarazi beharko zaio bertaratze falta osoa edo partziala, edo ordutegiaren kontrolean izandako edozein gorabehera, eta berehala izapidetu beharko da Justizia Administrazioako Zuzendaritzan, enpleguaren GEPEIZU-Atarian ezarritako mekanismoen bitartez. Mekanismo horiek langilearen atarian erabat ezarri arte, posta elektronikoz izapidetu beharko dira. Ez da izapidetzeko beste biderik onartuko.

## **7.- Ordutegia kontrolatzeko araudia ez betetzea eta iruzur egitea.**

Ordutegia justifikatu gabe betetzen ez bada, edo funtzionarioek fitxatzeko betebeharrean edo txartel magnetikoa erabiltzeko betebeharrean iruzur egiten badute, indarrean dagoen araudian ezarritako diziiplina-araubidea aplikatuko da.

Besteak beste, honako hauek iruzurtzat joko dira, ordutegia edo fitxaketa-mekanismoak betetzeari dagokionez:

- a) Txartel magnetikoa galdu edo erabilezin bihurtu dela ez jakinaraztea.
- b) Txartel magnetikoa beste edozein pertsonari lagatzea, aldi baterako bada ere. Kasu horretan, lagatzailearen zein lagapen-hartzailearen jokabideak joko dira iruzurtzat.
- c) Txartel magnetiko bat baino gehiago edukitzea.
- d) Txartel magnetikoa berehala ez itzultzea, hala dagokionean.
- e) Presentzia-kontrolatan esleitutako orduak faltsutzea.

## 8.- Ordu-zenbaketa

### 8.1.- Hileko saldo positiboak

Ezarritako ordutegia betetzeak ez du justifikatuko eginbide edo jarduketa prozesal urgenteak eta atzeraezinak etetea edo gelditzea, eta lanaldia luzatzeko ordu horiek ezarritako ordutegitik harago zenbatuko dira, honela:

- a. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 22:00etara lan egindako ordu bakoitza benetako bi ordu gisa, edo dagokion zati proportzionala.
- b. 22:00etatik hurrengo eguneko 07:30era, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan lan egindako ordu bakoitza benetako bi ordu eta erdi gisa, edo dagokion zati proportzionala.

Horretarako, dagokion eskaera izapidetu beharko da, bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunaren txostenarekin batera. Txosten horretan behar bezala arrazoituko dira lanaldia luzatzea eragin duten inguruabarrak, eta egindako jarduketa zehatzak aipatuko dira.

Aurreko ordutegi-kompentsazioak ez dira aplikatuko guardia-zerbitzua ematen den bitartean. Era berean, ez dira aplikatuko aipatutako ordu-tarteetan zerbitzuak ematen badira lanpostu jakin batzuek ezarrita dituzten lanaldi bereziak betetzearen, ordaindutako lanaldia luzatzeko akordioen edo, hala badagokio, ordutegiaren zati malgua borondatez egitearen ondorioz.

Aurreko inguruabarren ondorioz hileko lanaldia baino ordu gehiagotan lan egiten bada, ordu horiek konpentsatu ahal izango dira, soberako orduak sartu diren hilabeteko edo hurrengoko ordutegi malguaren barruan.

### 8.2.- Lanaldia ez betetzea eta lanorduak berreskuratzea.

#### 8.2.1.- Denbora konpentsatzeko irizpide orokorrak:

Lanaldia ez betetzea konpentsatu ahal izango da, lanorduak berreskuratuz, honako kasu hauetan:

- a) Asteko lanaldia ez betetzea, ordutegi malguan.
- b) Baimenak eta bestelako egoerak; betiere, lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak edo hitzarmen kolektiboak berariaz aukera hori aurreikusi badute.
- c) Ezinbestean, lanera ez joatea, lanera garaiz ez joatea edo lanean ez jarraitzea. Behar bezala justifikatu beharko da.

Ordutegi malguan zein derrigorrezko presentziaren ordutegian lanaldia betetzen ez bada, eta ez-betetzea justifikatuta badago, ez-betetzea gertatu aurretik edo ondoren erreferentziako lanaldiaren gaintik lan egindako denborarekin berreskuratu ahal izango da.

Oro har, ez-betetzea gertatzen den hilabetean edo hurrengoan berreskuratu beharko da.

Kasu horietan, gainera, urte berean hartzeko dauden oporrekin eta baimenekin konpentsatzea eskatu ahal izango da.

Arestian aipatutako ordu-kompentsazioak egin ez badira, urtearen amaieran ordainsarrietan dagokion deskontua egingo da.

8.2.2.- Ezinbestek bultzatuta lanaldia betetzen ez den kasuetan, osatu beharreko denbora urtean 2 egun baino gehiagokoa bada, 2 egunetako orduak baino ezingo dira errekueratu. Gainerako orduak hartu ez diren baimenetatik kenduko dira (halakorik izanez gero).

### **8.3.- Lanpostuan nahitaez egoteko betebeharra eta gutxieneko lanaldia ez betetzea.**

Beti justifikatu behar da lanpostuan nahitaez egoteko ordutegian lanera huts egitea eta gutxieneko lanaldia ez betetzea. Absentzia ezin bada justifikatutzat jo, zuzendaritza honek justifikatu gabeko absentzia-denbora hartu gabeko baimenen denborarekin konpentsatuko du. Jakinarazpen bat bidaliko da gertaera horren berri emateko.

### **8.4.- Nominatik deskontatzeko prozedura**

Dagokion nominatik ordainsariak kenduko dira, baldin eta:

- kontingente nahikorik ez badago
- arrastatutako saldo negatiboa metatzen bada, egin beharreko hileko lanaldiaren % 25etik gorakoa.
- interesdunak hala eskatzen badu,

Deskontu hori prozedura honen arabera egingo da:

- 1.- Hasteko ebazpena idatziz jakinaraziko zaio eragindako pertsonari
- 2.- 15 laneguneko epea egongo da alegazioak eta egiaztagirak aurkezteko. Idazki hori posta elektronikoz bidali beharko da r-humanos@euskadi.eus helbidera, goiburuan nominan deskontua egiteko prozedura eta horren identifikazioa zehaztuta.

3.- Epe hori igaroz gero alegaziorik egin gabe eta absentziak egiaztatzeko agiririk aurkeztu gabe, egintzat joko da entzunaldi-izapidea, eta Zuzendaritza honek deskontatu egingo ditu dagozkion zenbatekoak, gehienez ere hiru hilabeteren buruan, eta, oro har, epe bakarrean.

4.- Betearazpen horrek ez du administrazio-bidea agortuko, eta gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari hilabeteko epean, deskontua egin zenetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

5.- Alegazio-idazkia aurkeztu bada, zuzendaritza honek erantzun egingo dio, prozedurari amaiera emango dion ebazpenaren bidez. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik hasita. Kasu horietan, ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean egingo da deskontua.